




**XABIER MONTOIA
eta MIKEL ANTZA**

bi lagun
literaturaren
barrunbeetan

- **Josune Ariztondo** «Zenbat eta kultur komunitate sendoagoa, orduan eta komunitate politiko hurbilagoa»
- **Busturialdea** Bailarako hizkera aniztasuna lantzen hasi dira Xeber Altube ikastolan
- **Net Hurbil** Zorraren ardurak salatzeko, "festa" antolatu dute Parisen
- **Telebista** Benetan interaktiboa izateko gakoak
- **Larrun** Herrien erabaki eskubidea

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 23. JAIA

BALMASEDA, EKAINAK 1

- ▲ VENDETTA
- ▲ SIROKA
- ▲ PIRRITX, PORROTX
ETA MARIMOTOTS
- ▲ EH 11 KOLORE KALEJIRA
- ▲ KIROL-GUNEA
- ▲ HERRI-BAZKARIA
- ▲ DANTZA-PLAZA
ETA...
- ▲ ASKOZ GEHIAGO!

Laguntzailea:



GORANTZ
GO GO GO!

ehige
gurasoen elkarte

www.euskaleskolapublikoarenjaia.org



Azaleko argazkia:

JUAN CARLOS RUIZ

/ARGAZKI PRESS

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Kortá, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñia. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaita Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko maiatzaren 25a, 2.416. zenbakia

ASTEKO GAIA

TELEBISTA INTERAKTIBOA Aplikazio hiltzailea noiz helduko zain.
JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 4

PERTSONAIA

MIKEL BELASKO: «Toponimoekin arazoak baditugu, gizartean ere arazoak ditugulako da». REYES ILINTXETA / 9

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Espazio libre eta autogestionatua
aldarri Egian. LIDE HERNANDO / 14

HIRIGINTZA Pasileku, herriaren bihotza berreskuratzeko proiektua.
MARIJO DEOGRACIAS / 16

IRITZIAREN LEIHOA

IRUDIAK GEZURREN AURKA, BOTOAK BALEN KONTRA

ASIER BLAS MENDOZA / 20

DONOSTIA LOW COST MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 21

ILUSIOA, PUXIKA ETA LOKARRIA MIKEL IRIZAR / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

BERTSO BERRIAK Anisakisa. IBAI ESOAIN ARRUTI / 21

TXANDAN Kanpainan. KATTALIN MINER / 22

ERDIKO KAIERA

XABIER MONTOIA: «Egia beti iraultzailea delakoan nago, baina nork behar du iraultza bat bere bizitzan?». MIKEL ANTZA / 23

LITERATURA 2014 Euskal letren plaza berezitua Zarautza
aldatu da. MYRIAM GARZIA / 27

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ, GARBINE UBEDA / 29

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 30

ALEA Beltzak zuri eta zuriak beltz. GOIZALDE LANDABASO / 31

IHESI BEDAIO, TOLOSA (GIPUZKOA) Muga berdeen magalean.
ENERITZ IRAOLA ODRIOSOLA / 32

OSASUNA JABIER AGIRRE / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

JOSUNE ARIZTONDO: «¿Zan garenari baino, gaitezkeenari begiratu behar diogu?». MIKEL ASURMENDI / 37

BERRIKUNTZA Energiaren zero gunea Hernaniko Galarretan.
MARTIN VICIOSO / 40

SEBER ALTUBE IKASTOLA Busturialdeko hizkera guztiak ikasgela berean. MARIJO DEOGRACIAS / 42

IRUÑEKO HIZKUNTZA PAISAIA Euskara zokoratu duten seinaleak
Google Maps-en kokatzen. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL La fête de la dette, itotzen gaituen zorra irribarrez
ulertzeko. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Aplikazio hiltzailea noiz helduko zain


Azken urteotan ugaritzen ari zaizkigu beren izenaren baitan 'smart' aurrizkia daramaten gailuak eta proiektuak. Ezagunena smartphonea izan da, eta hitz horrekin batera, gero eta hedatuagoa den komunikaziorako gailua, non telefonoa eta internet zerbitzuak uztartu baitiren. Telebistari dagokionean, sarri ikusten dira, bereziki saltokietako iragarkietan eta publizitate kanpainetan, telebista inteliggentea edo smart telebista moduko kontzeptuak.

| JOXERRA AIZPURUA SARASOLA |

IRUDI LEZAKE smart izendapenak punta-puntako modernitatea eta etorkizun kutsua ematen diela produktuei. Eta hala, *Smart proiektuak* planteatzen dira hirietan, zerbitzuak gizarteratu, energia sareak optimizatu eta dena delakoa hobetzeko metodo gisa.

Smartphoneetako sistema operatiboak	2012ko otsaila	2013ko otsaila
Android	%70,9	%92,1
iOS	% 5,9	% 4,4
Symbian	%10,5	% 1,1
RIM	%10,2	% 1,0
Windows	% 2,5	% 0,9
gainerakoak	% 0,0	% 0,5

Iturria: Worldpanel ComTech



Telebista interaktiboetan plataforma zabalduenak Samsung Smart TV, LG Smart TV, Sony Applicast, Panasonic eta Philips NET TV dira.

Smartphonearen bidez telefono eraman-garriari internet zerbitzuak gehitzea lortu bada, beste horrenbeste beharko luke telebistari dagokionean ere: telebistari telefono, internet eta hirietako smart proiektuak bateratzeko gailua izan beharko luke. Nora garamatza horrek?

Familiako, batez beste telefono finko bat, bizpahiru sakelako telefono edo smartphone, telebista bat edo bi (horietariko bat smart izan daitekeena), ordenagailu finko bat eta ordenagailu eramangarri bat (edo iPad-a edo tableta) biltzen dira. Geure bizimoduan txertatuta daude eta dagoeneko ohikoak ditugu, baina bakoitzaren funtzioa besteenarekin gurutzatzen zaigu gero eta maizago. Urrutiko lagunekin hitz egiteko, telefonoa ez ezik ordenagailuak erabil ditzakegu. Internet zerbitzuetarako smartphoneak eta ordenagailuak baliatzen ditugu, eta gero eta sarriago, telebista. Filmak ikusteko telebista edo ordenagailua behar dugu eskura, eta musika entzuteko, berriz, edozerk balio digu.

Telefonoari, telebistari edo ordenagailuei internetek ematen die zerbitzu berriak eskaintzeko aukera, eta guztiek interneti lotuta dute etorkizuna. Zerbitzu berriak eskaintzen dizkigute etengabe, alabaina, bakoitzak bere bidea egin beharrean zerbitzu gurutzatuak asmatzeko gai izango balira, eskaintza adimentsuagoa egingo ligukete, zalantzarik gabe. Etxean ditugun gailuek zerbitzu jakinetan elkarrekin eragitea eta zerbitzu aurreratuagoak lortzea, horixe da hain zuzen, telekomunikazioetako ikerkuntza alorrean dagoen erronka nagusienetako, edukiak, hizkuntzak, estandarrak, era-



biltzaile-kopuruak eta gainerako ezaugarriak horren menpe baitaude.

Baina gailu desberdinen arteko interakzioa eraginkorra izan dadin, zenbait arazo konpondu eta beste hainbat korapilo askatu beharko dira. Horiexek artikulu honen aztergaiak izanik, Vicomtech-IK4 zentro teknologikoko Mikel Zorrilla ikerlariarengana jo dugu argibide bila.

Gaur egungo egoera

Smartphoneak, hamarkada honetan merkatu-ratu zirenez geroztik, esponentzialki zabaldu dira erabiltzaileen artean, eta aurrerantzean horrela jarraituko dute, itxura guztien arabera. Smartphoneak ez zuen hasiera erraza izan, hainbat eta hainbat sistema eragile baitzeuden, eta egoera hori oztopo nabarmena zen aplikazioak plazaratzeko garaian, sistema

Telebista interaktiboan arazorik handiena agintea da, botoia sakatu eta berehalako emaitza eskatzen baitiugu. Era berean, oso logikoa izan liteke gainerako gailuak (tableta, smartphone...) erabiltzea horretarako.

batean garatzen zena birgaratu egin behar izaten baitzen beste sistemetan ere aritzeko. 2010ean, adibidez, derrigorrez egin behar zen birmoldaketa lan hori, merkatuan sartu nahi izanez gero.

Symbian, Android, Blackberry, iOS eta Microsoft ziren besteak beste borrokan ari ziren markak, baina 2011tik aurrera bi izan dira nagusiki merkatuan geratu diren estandarrak, hots, Android eta iOS, eta horrek garatzaileei bidea ikaragarri erraztu dienez, une honetan milaka aplikazio eta joko ditugu bi plataformetan. Hainbeste aplikazio eta zerbitzu edukitzeak smartphoneen salmenta ikaragarri areagotu duenez, 2015ean 1.000 milioitik gora ale salduko direla aurreikusten da.

Telebista interaktiboaren eboluzioa bestelakoa da oraindik. 2013. urtean, internetera



Xapoa

Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

MIKEL ZORRILLA

Vicomtech-IK4 zentro teknologikoko ikerlaria eta telekomunikazioetan aditua

«Internet zerbitzuak telebistara egokitzea baino, telebistako edukiak zerbitzuz osatzea izan liteke gakoa»

Nola irudikatzen dituzu gauzak, telebista erakargarriagoa egiteko bidean?

Hasteko, zerbitzuek horretarako pentsatuak beharko dute izan. Telebista urrutikoa zaigu telefono mugikorra edo tableta bezalako gailuekin konparatuta. Bestalde, jende gehiagorekin partekatzen dugu. Nire kontu pertsonalak ez ditut hor sartuko besteek nire posta irakurtzea nahi ez badut. Zerbitzuek oso zehatzak izan behar dute, bereziki ikus-entzunezkoak, eta batez ere, edukiaren ingurukoak. Horixe behar du telebistak nire ustez: LTDtik jasotzen duzunarekin batera, seinaleaz gain, zerbitzu osoak ematea. Bitartean Facebooken sar zaitezkeela edo antzekorik esan ordez, zuzenean zerbitzua agertzea, ezer egin gabe gainera, eta aukera ematea iritzia emateko, bozketan parte hartzeko edo dena delakoan parte hartzeko. Telebista katea ikusteaz gainera, zerbitzua ere ikusi ahal izatea. Eta bestalde, esperientzia hori beti izatea eskuragarri, ez zuzenekoan bakarrik, biharko egunean edo sartzen naizen momentuan ere hortxe aurkitzea. Zerbitzuaren konsistentziak nire momentura eta egoerara egokitu beharko du.

Inportanteena ez da egun dauden zerbitzuak telebistarako prestatzea. Izan liteke bide bat, bai, demagun Facebookeko aplikazio bat telebistara

egokitzea, testu asko kendu eta irudi-bideoak hobestea, telebista-agintearen bidez pasatu ahal izateko. Izan liteke, egia da, baina askoz egokiagoa iruditzen zait telebistaz ikusten dudana eduki horri zerbitzuak gehitzea.

Publiko zabala dugu buruan telebista aipatzen denean, baina sistema horrek ere izan dezake erabilpen partikularra, demagun enpresetan.

Azken finean, egongela eta telebistaren paradigmaren hurbiltzen gara publiko zabalarengana. Baina ageriko pantaila bat dagoen tokian, eta denok geure gailuak ditugula, zerbitzu asko eman daitezke interakzio maila horretan. Trenean film bat jarri behar badute, zergatik ez filma denon artean aukeratu. Autobusean goazelarik, beharbada gutako zenbaitek taxia hartu beharko dugu gero, zergatik ez ikusi nora doan bakoitza. Egoerak interakzio maila bat ahalbidetzen du.

Esperimentu bat. Donostiako alde zaharrean zaude eta pantaila batean, demagun, Bartolo jatetxea ageri da, eta eskaintza berezia egin dizu. Hortxe momentuan interaktuatzeko aukerarik ikusten duzu?

Hor dago koska. Discovery edo Association deitzen zaio ikerketa alor horri: nola erlazionatu dauden zerbitzuak, erabiltzaileak eta erabiltzaile

horiek dituzten gailuak. Nola egin lotura eta bere parametro guztietan kudeatu. Badira sistemak, esaterako QR kodeak, bluetooth... eta bakoitzak bere abantailak eta eragozpenak ditu. Batzuek wifi sare berean egotea eskatzen dute, beste batzuek ez, baina kontaktu bisuala ezinbestekoa dute, QR kodearen kasuan bezala... Gauza asko dago, eta kontua da gauzak nola egin, sistema bat teknologiatik harago joan dadin. Eta zerbitzuak behar du izan zure gailu guztietara egokitzen dena eta gainera sinkronizatuta dagoena; ikusten dudana koherentea izatea pantaila ezberdinetan, eta bihar banator, biharko egoerara moldatzea. Horiek guztiak dira erronkak.

Azkenean, garbi dago gailuz inguratuta bizi beharko dugula. Eta garbi dago, zenbat eta interkonexio handiagoak, orduan eta zerbitzu hobeak izango ditugula, baina dispersioa dago teknologietan. Ba al dago zure ustez gailenduko denik?

Bi aukera nagusi ikusten ditut nik. Bata, nabigatzaileen gainean egitea, eta estandarrei jarraituz, HTML5 edo dena delakoaren inguruan. Bestea, hardware bat jartzen duen inguru oso baten gainean egotea. Demagun, iphone, ipad, Appleren telebista... Etxe berekoak errazago egokitzen dira, baina gailu guztiak irizpide

konektaturiko telebisten salmenta %28ra iritsi zen herrialde aurreratuetan, eta aurreikuspenen arabera, 2016. urterako, saldutako telebisten portzentajea %70era iritsiko da. Honekin batera, 2014. urtea amaitzerako 785 milioi etxebizitza egongo dira banda zabalera konektatuta. Alegia, internetera konektatzeko gai diren telebisten erdiak prest egongo dira kalitate altuko edukiak bideoak zein bestelako zerbitzuak internet bidez kontsumitzeko. Konektatutako telebisten erabilpen zabalena multimedia zerbitzuei dagokio (%57), ondoren sare sozialena dator (%11).

Gaur egun internetera konektaturiko telebistak hiru software plataformatan banatuta daude nagusiki.

Batetik, saltzailearen plataforman oinarritzen diren telebista konektatuak daude (LG, Samsung, Sony, Philips...). Teknologikoki, hurbilpen ezberdinak izaten dituzte, nahiz eta orokorrean guztiek web nabigatzaile bat duten oinarrian. Batzuek JavaScript-en oinarrituriko soluzio ez estandar bat erabiltzen dute. Esate baterako, Sony Applicast. Beste batzuk ordea, HTMLn (CE-HTML, HTML4, HTML5) oinarrituta daude. Beste gutxi batzuek soluzio itxietara jotzen dute

horren arabera aukeratzea eskatzen du, hortik kanpo-ko gailuek ez luketelako zereginik izango.

Nork agintzen du?

Merkatuak. Telebistaren kasuan, gainera, bada elementu oso potente bat, telefonoetan ez zegoena: edukia. Hemen ez da Samsung edo iPhone arteko lehia hutsa. Telebistako programazioa 24 ordutan ematen duenak bere kontrolpean nahi ditu edukia. Guk, Vicomtech bezala, estandarrek bultzatzen ditugu. Ez gaude ezertara mugatuta, eskatzen diguten erara lan egiten dugu, eta enpresek hartzen dituzte erabakiak. Edozein gailutarako garapenak egiten ditugu, baina gure apustua estandarren aldekoa da beti. Mobilen kasuan, gainera, ikusten dugu HTML5 errealitate inportantea izango dela, lortu duen arrakastari erreparatu besterik ez dago. Nik ere horren alde egingo nuke, nire filosofiatik, baina gainera, errealista ere iruditzen zaidalako.

Teknologia dela eta, nola gaude Euskal Herrian, gainerako herrialdeekin alderatuz?

Alemanian daude telebistarako zerbitzu interaktiboetan aurreratuen, Erresuma Batuan ere badituzte gauzak, baina bestela, besteekin batera goazela esango nuke.



Duela urte batzuk, jende asko gelditzen zen ordenagailuetatik eta telefonoetatik kanpo. Telebista denok erabiltzen dugun gailu gisa ikusten zen, zahar eta gazteen eskura, eta horretan aurreratzeko premia ikusten zen. Telebista interaktiborako bidea ematen zuten estandarrek baziren, baina garapenerako teknologia oso astuna zen, aparatuak ere bereziak erosi behar ziren. Eta ahalegina bertan behera geratu zen. Zer egin da orain? Teknologia web aldera hurbildu. Orain plata-

forma oso ezberdinak daude, baina teknologiak beti dira Javascript, HTML eta antzekoak. Jendeak askoz hobeto ezagutzen ditu hauek, hor garatzeak ez du halako beldurrik ematen, eta zerbitzu gehiago sortzea ahalbidetzen du. Gaur amesten duguna, multipantaila, gailu batetik bestera pasatzea, egin liteke? Bai, eta gaur egun dugun teknologia nahikoa izan daiteke horretarako, baina modu zehatzetan egin behar da, garatzaileak parametro asko kontrolatu behar ditu, seguruenik erabiltzaileak gailu espezifikoak behar ditu...

Orduan zein da pausoa?

Web orri bat garatzen den bezala, multigailu hori oso era errazean kontrolatu ahal izatea, eta ia automatikoki. Azkenean, ikerketa zentro batek aplikazio zehatz bat garatu eta erakustea baino gehiago, edozein garatzaile, eduki zerbitzua daukana, bere kabuz horretarako gai izatea. Orduan sortuko dira benetan erabiltzailearentzako aplikazio interesgarriak, horrek ahalbidetuko duelako *killer application* baten etorrera.

Maila batean eman da jauzi hori, HTMLrantz, baina oraindik dispositibo baten oso menpeko diren aplikazioak dira, ez dute ingurua kontuan hartzen, erabiltzaileak hainbat gailu izan ditzakeela, eta batetik bestera pasatzeko aukera ere ez da oraindik kontuan hartzen.

(Flash edota Java). Mota honetako plataforma zabalduenak Samsung Smart TV, LG Smart TV, Sony Applicast, Panasonic eta Philips NET TV dira.

Bigarrenik, sistema eragilean oinarrituriko telebista konektatuak daude (Android, iOS, XBMC...). Oro har, telefono eramangarrietan eman den eboluzioaren antzekoa izan dute. Kasuotan, badira Android sistema eragileak dutenak, zeinaren bidez, besteak beste, telebista urrunetik kontrola daitekeen.

Sistema eragilean oinarrituriko telebista konektatuetan kasu berezia, Yahoo Connected TV! dugu. Merkatuan holako zerbitzuak

eskaintzen aitzindaria izan zen. JavaScript-en garatutako plataforma batean oinarritua dago eta bere zerbitzuak widgets motakoak dira.

Yahoo!-ren soluzioaz gain, Googlek eta Applek soluzio propio bana dute internetera konektatutako telebistetarako. Google TVk Chrome web nabigatzailearen bidez zerbitzuetara sartzeko aukera ematen du. Androidek eskaintzen duen garapen-ingurunearen antzekoa erakusten du, telebistaren baliabideak kudeatzeko gaitasuna ematen duen API jakin baten bidez. Besteak beste, telebista kanala aldatu, bolumena egokitu, teklatu birtuala eskaini, nabigazio egokitua erabili eta

TELEBISTA INTERAKTIBOA



beste. Apple TVk, telebista bidez Apple dituen zerbitzuak atzitzeko aukera ematen du, baita marka bereko gailu ezberdinen komunikazioa ahalbidetu ere.

Hirugarrenik, estandarretan oinarrituriko telebista konektatuak ditugu: European HbbTV, EEBB, ATSC... Enpresa handiek ez bezala, gaitasun ekonomiko txikiagoa duten enpresek soluzio integratua emateko bidean, egun badiren teknologien ganean oinarritzen dituzte haien proposamenak. Hala, Androiden oinarrituta 15 produktutik gora daude merkatuan, eta beste hainbeste Linux sistema eragileari dagokionez ere. Hauetariko asko, merkatu propioa eskaini ahal izateko, egungo estandarretan oinarritu dira, batez ere HTML eta HTML5en.

Ikusten denez, laino handia dago smart telebistaren alorrean, eta horrek aplikazio

Telebista interaktiboa aisiarekin lotzen bada ere, erabilera anitzak bermatuko du bere etorkizuna.

espezifikoaren garapena geldiarazten du, oso akigarria baita bakarrerako behar-rean hiruzpalau sistematarako programatu beharra.

Eta etorkizunean zer?

Smartphoneak eta tabletak oso agudo doaz aurrera, *killer application* deitzen dena edo gainerako aplikazioak bazterrean utzi zituen aurkitu zenez geroztik. Esate baterako, smartphoneetan sare sozialetarako programak izan diren bezala, tabletetan jolasak dira giltzarria.

Telebista interaktiboan ez da oraindik aplikazio hiltzailerik aurkitu. Mikel Zorrillak aipatu digunez, telebistan, aparatua piztu eta botoi bat sakatu orduko kanalen bat ikustea espero dugu. Batekotasun horretara gaude ohituta telebistan. Ordenagailuan, berriz, tresna piztu eta aplikazioetan nabigatzen hasteko, pare bat minutu joan zaizkigu eta normalizat jotzen dugu.

Telebista interaktiboetan, internet aplikazioak erabili ahal izateko hainbat klik egin behar ditugu, gora eta behera ibili behar dugu nahi duguna aurkitzeko. Hori, telebistaren erabilpen naturalaren aurkakoa denez, oso erraza da instintiboki bertan behera uztea edo "paso" egitea.

Agian, egun existitzen ez den aplikazio batekin edo batzuekin, "hiltzailea" aurkituko dugu halako batean, eta horrek telebista interaktiboaren merkatua handituko du. Ziurren, aplikazio hiltzaile horren garapenerako erabilitako teknologia orokortuko da, baina bitartean, erronkei heldu beharko zaie-nez, Europatik bultzatzen ari diren

estandarren aldeko bidea egitea aholkatu digu Mikel Zorrillak.

ARGIAk berak ere, telebistak familian duen garrantziaz oharturik, multimedia kanala telebistaratzeko bidea hasi berri du. Noizbait, smartphonetik ARGIAra konektatu eta ikusi nahi genukeen bideoa telebistara "bidaltzeko" agindua eman ahal izatea, eta bitartean gure smartphoneetan bideoaren transkripzioa zenbait hizkuntzatan agertzea, erabilitako hitz edo kontzeptu nagusien azalpen estatistikak ikustea, edo bideoa testu zati batean posizionatu ahal izatea, aldi berean webgune jakin batzuk bisitatzea edo beste hamaika amets noizbait errealtate bilakatuko diren asmoan. Eta aplikazio hiltzaileak euskarari abantaila emango dion esperantzaz. ■



PERTSONAIA

MIKEL BELASKO

«Toponimoekin arazoak baditugu, gizartean ere arazoak ditugulako da»

Toki izen zaharrak mintzo zaizkigu apalki.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco



Euskaldunberria zara. Noiz eta nola ikasi zenuen euskara?

Oso gazte nintzela, 14 urterekin, hasi nintzen Iruñeko Joan de Amendux euskaltegian. Klaseko gazteena nintzen. Todor Arburua, nire amaxiren osaba, izan zen Etxalarko apaiza, euskaltzain urgazlea, idazle saritua Iruñeko Udalaren literatura lehiaketa batean gerra aurretik eta Etxalarko toponimia guztiaren biltzaile kementsua. Nire amatxi, Felisa Almandoz, Iruñeko lehen ikastolako andereñoa izan zen gerra baino lehen, beraz nik egin nuena izan zen, nolabait, familian aurreko belaunaldian galdu zen euskara berreskuratzea. Dena den, hori dena jakin nuen ikas-ten hasi eta gero. Euskaltegian sartzeko bultzatu ninduen lagun on bat izan zen.

Nola sortu zitzaizun leku izenenekiko zaletasuna?

16 bat urterekin asko gustatzen zitzaizkidan mapak. Askotan militarrenak begiratzen nituen eta gero bizikletarekin ateratzen nintzen mapetako lekuak ikustera. Horrela zale-tu nintzen izenekin. Garai hartan José Mari Jimeno Jurio historialaria ezagutu nuen eta horrek, nolabait, markatu zuen nire bidea. Oso gizon irekia zen eta berehala niri eta interesa zuten beste batzuei bere etxeko atek ireki zizkigun, bere paperak mahai gainean utziz eta ikertzeraz gogotik animatuz. Eusko Ikaskuntzan sortu zen orduan Santiago Bidearen toponimia aztertze-ko beka bat. Aldi berean Iruñeko leku izenak aztertze-ko beste talde bat sortu zen eta giro horretan murgildu nintzen buru-belarri. Karrera amaitutakoan, 1990ean, Nafarroako Toponimia Txikia biltze-ko proiektu abiarazi berrian sartu eta han aritu nintzen hamar urtez. Hizkuntza Politika Zuzendaritza Nagusiak ordainduta, eta Tracasa enpresa publikoak gauzatu, lortu zen Nafarroako 100.000 izen ofizial izatea eta kartografia ofizialean agerraraztea. Helburua zen izen horiei balio praktikoa ematea mapa ofizialetan txertatuz. Asmoa bete zen eta eragin sakona izan du praktikan: 60 liburu argitaratu ziren eta orain informazio guztia internet bidez eskuragai dago. Izen horiek guztiak herri guztietara joanez eta adineko jende-ari galdetuz lortu genituen. Orain egin izan balitz ehuneko hoge-i gutxiago bilduko zen seguruenera.

Zer erakusten du toponimiak?

1.000 urte, 500 urte duten argazkiak dira toki izen asko eta asko. Erakusten digute behiala paisaia nolakoa zen, zer landaredia zegoen, oihanik zegoen ala ez, nolako lanbideak zituzten... eta aunitzetan desagertu diren gauzak ere bai: ardantzeak iparraldean edo hariztiak hegoaldean, adibidez. Izen batzuk

oso ilunak dira, beste batzuk aspaldikoak izan-nik ere oso argiak dira, Jaun Done Mikel eta beste santuen izen zaharrak, adibidez. Hizkuntzaren aldetik informazio asko ematen digu. Tafallatik iparraldera euskara oinarria duen toponimia da nagusi eta handik behera, aldiz, erromantzea. Toki askotan ez da euskarazko idazkirik gelditu eta hango euskara zertxobait ezagutzeko gelditu zaigun bide bakarra toponimia da.

Eta animalien aztarnak ere bai.

Otsoa erraza da antzematea: Otsobi, Otsabide, Otsaran, Otsoportilo, Otsate... Hartza, aldiz, ez horrenbeste, zaila delako jakitea izena noiz datorren hartzatik eta noiz harritik. Toponimia lantzean, bertaratzea eta tokian zer dagoen ikustea oso garrantzitsua da beti.

Orain zer duzu esku artean?

Izarbeibarko eta Mañeruibarko jendearekin ari naiz hango etxeen izenen bilketa egiten. Urtea amaitu baino lehen 2.000 etxe izen baino gehiago biltzen dituen liburua plazaratuko dugu. XVIII. mendean oso ongi dokumentatuta agertzen dira izen horiek, gertatzen dena da, Iparraldean ez bezala, aldaketa asko gertatzen direla. Jabeak garrantzi handiagoa du etxeak baino eta horregatik izen horiek ez dute irauten mendialdekoek bezainbeste. 100 urteko epean aldaketa asko ikusten dira.

Bestalde, Juan Carlos Lopez Mugarza NUPEko irakaslearekin ari naiz Andorrako

NORTASUN AGIRIA

Mikel Belasko (Iruñea, 1967ko urtarrilaren 30a). Filologoa. Toponimian, abizenen jatorrian eta oikonimian aditu handia eta dibulgatzaile ezaguna. Egun Nafarroako Unibertsitateko irakasle elkartua da, Eusko Jaurilaritzako Euskararen Aholku Batzordeko eta Euskararen Nafar Kontseiluko kidea. Horretaz gain, Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakariordea eta Zuhaitz Zaharren Lagunen Elkarteko partaidea. Bere bi liburu ezagunez gain, *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*, *Apellidos navarros* eta *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*, Nafarroako Gobernuak 2000n argitara emandako *Toponimia oficial de Navarra*. *Nafarroako toponimia ofiziala* lanaren egilea eta *Navarra. Toponimia y Cartografía* bildumako 60 liburukitako hizkuntza koordinatzailea da. Euskalerrira Irratian, *Ze Berri?* aldizkarian eta *Diario de Navarra*n kolaboratzailea da egun. Euskara eta hizkuntzalaritza teknologia berrie-kin uztartzen ere trebea da Belasko, eta Nafarroako ondare ez materialaren artxiboan hasi berri da lanean, Ikerketa taldean.



Hagina lorategi askotan jarri ohi da apaingarri gisa, baina jende anitzek ez daki hilgarria dela. Bere kimuak janez gero, abereak eta pertsonak hil daitezke eta garai batean gezi puntak haginaren pozoiarekin bustitzen omen zituzten. Irudian, Nafarroako Unibertsitate Publikoko haginaren alboan.

Gobernuak sustatutako lan bat egiten Piriñoetako toponimiaz. Hemen, euskal toponimo bat aurkitzen duzunean kasik arazoa sortzen zaizu eta han, aldiz, desiotan daude. Bitxia da. Gu ari gara mugak jartzen, dena ez baita euskara. Edozein modutan ere, pozgarria da ikustea euskara aintzat hartzen dela halako ikerketa batean.

Toponimia nagusian, herrien izenen inguruan saltsa ederra dago Nafarroan.

Sekulako borroka dago leku izenekin. Ere mu euskaldunean euskal izenak ofizialdu egin ziren eta horiek erabiltzen dira. Beste eremuetan, aldiz, euskal izena ere ofizial egin nahi izanez gero, herri bakoitzak eskatu behar zuen. Ere mu euskalduneko herriek bi izen zituztenean, Doneztebe-Santesteban adibidez, biak ofizialdu ziren. Horri ez zioten garrantzi handirik eman, baina arazoak hasi ziren eremu mistoko udal batzuek onartu zutenean izen elebiduna, Estella-Lizarra edo Pamplona-Iruña esate baterako, eta horiek horrela erabili behar izatea saihesteko dekretua atera zuen Nafarroako Gobernuak esanez hori eremu euskaldunean onartzen zela baina ez besteean.

Hala ere batzuei kosta egiten zaie euskal izenak onartzea. *Diario de Navarrak*, esate bate-

Arazoak

“Toponimoak gure munduaren isla dira. Haiekin arazoak baditugu, gizartean ere arazoak ditugulako da”.

rako, duela gutxira arte Vera de Bidasoa jartzen zuen beti.

Horrek ere azkenean amore eman du eta izen ofizialak erabiltzen ditu orain. Dena den, badira kasu batzuk oso korapilatsuak. Lizarran, adibidez, Estella-Lizarra onartu zuten izen bakarra bezala eta Auzitegi Gorenak arrazoiak eman dio Udalari, beraz multzo zatiezina da eta horrela erabili behar da beti, nahiz eta formula hau ez den oso erabilia ezta praktikoa ere.

Eta Iruñea edo Iruña, nola esan behar da?

Iruñearen kasua oso nabarmena da: Iruña Udalak erabiltzen duen forma da, bestea Euskaltzaindiak gomendatutakoa. Iruñea ez da ofizialki inon existitzen. Iruña da ofiziala, baina deklinazioa Iruñearekin egiten da. Eromena da eta bata edo bestea erabiltzeak kasik zure lerro ideologikoa erakusten du gaur egun. Onena izanen zen biak onartzea. Iruña izan daiteke hiriarren marka baina Iruñea forma ere erabiliz. Irunberri eta Ilunberriekin gauza bera gertatzen da, borrokan daude eta ados jartzen ez denez izen ofizial bakarra Lumbier da.

Iruñeko kale izenetan euskararen presentzia gero eta murriztagoa da.

Landaguneen izenak Gobernuaren eskumena dira, baina besteak udalenak. Duela ia 20

urte ponentzia bat prestatu zen Iruñean kale izenak bi eletan jartzeko baina kritika gogorrak izan ziren eta kanpaina bat antolatuta zuten esanez hankaz gora jarri nahi zutela kale izendegia. Horren ondorioz trakestu egin zen eta kaxoi batean sartu zuten proiektua. Hori izan zen lehen porrot handia normalizaziorako. Handik gutxira etorri zen “Bai euskarari” kanpaina; Sadar eta beste futbol zelaia goraino bete ziren. Harrez geroztik gogortu egin zen euskararen aurkako joera Nafarroaren Gobernuaren aldetik. Haien argudioa zen hemen bizi den euskal komunitatea artifizia delako. Txinatarrak ere hemen bizi direla, adibidez, baina hori ez dela arrazoia kale izenak txineraz jartzeko. Kale izendegiak islatzen du hiriarren ideologia. Frantziako iraultzara arte Europa osoan kaleen izenak lanbideekin lotuak zeuden. Deskriptiboak ziren. Frantsesak hasi ziren kaleei garrantzia eta izenak ematen. Kaleen zenbakiak eta posta-kodeak sortu zituzten dena sailkatua eta kontrolatua izateko. Horrela sortu zituzten balio ideologikoa duten izenak. Iruñean ikusten da lehenengo zabalgunean izen nafarrenak daudela: erregeak eta abar. Francoren garaian martiriak eta era horretakoak izan genituen eta orain ETako biktima batzuen izenak jartzea modan dago.

Nork proposatzen ditu izen berriak?

Udal artxibozainek proposatzen dituzte. Bada aditu sare ez ofizial bat horren inguruko aholkuak emateko, baina ez dugu inolako erabakimenik. Guk beti proposatzen dugu lehenbizi erreparatzea ea toponimo zaharrik ote dagoen hor eta azken aukera bezala bizi-rik dagoen pertsona baten izena ematea, badaezpada ere. Honekin batera dagoen arazo handia da Udalak ez duela Iruñeko hizkuntza paisaia euskara ikusgarri egotea nahi, eta horregatik adibidez, kaleen izenak ez dira bi eletan jartzen.

Leku izenen zalea izateaz gain, zuhaitz zaharrak ere maite dituzu.

Izen zaharren bidez, hain zuzen, sartu nintzen zuhaitz zaharren mundura. Iruñeko zuhaitzen inguruko lan bat egin nuen eta hor

Balio sinbolikoa

“Toponimia praktikoa da, komunikatzeko tresna bat adierazteko non gauden, baina badakigu ere balio sinboliko oso handia duela eta izenen atzean gauza asko daudela. Bistan da mila aldiz errazagoa dela toponimo bat berreskuratzea hizkuntza berreskuratzea baino”.

Euskal leku izen desitxuratu zenbait

Las rubias (Harrobiak), Once vacas (Euntze bakar), Los cacharricos (Gatz harrikoak), Narval (Larzabal), El lanzador (Auzalor), Los gorris (Lur gorri), Esquives (Aizkibel).

ikusi nuen horiek ere, leku izenak bezala, galtzeko bidean daudela, ez baitute inongo babesik. Zuhaitz ehiza, ingelesek esaten duten bezala, gustuko dut: mendira ateratzea zuhaitzak ikustera.

Zer egiten duzue Zuhaitz Zaharren Lagunen Elkarteak?

Proiektu europar interesgarri batean ari gara lanean, Ingalaterra, Suedia, Errumania eta Belgikako beste elkarte batzuekin, basogintza eta nekazaritza irakaskuntza espezializatuan erabiltzeko metodo bat sortzeko. Zuhaitz hauek nola identifikatu eta nola zaindu behar diren azaldu nahi dugu, oso garrantzitsuak direlako bai identitatearen aldetik baita biologiaren aldetik ere. Gida euskaraz eta gaztelaniaz ari gara hemendik egiten. Nafarroan milaka zuhaitz interesgarri dugu eta kontua da udalak eta kontzejak formakuntza eskaintzea jabeek eta basozainek.

Zertan datza zainketa hori?

Lehenbiziko urratsa ezagutzea da. Bigarrena, haren egoera egian zein den ikustea. Adibidez batzuek itxura ederra dute baina sustraiak gaizki, zapalduta, beren inguruan bazkatzen duten abereen pisuaren ondorioz. Eta hamaila kontu zehatz gehiago dago, esate baterako nola zahartu aleak edo pago lepatuekin zer egin, hau da, egurra azkar egiteko urteetan adarrak moztu izan dizkioten zuhaitzak eta azken urteotan utzi eta neurritz kanpo hazi diren horiekin nola jokatu.

Babestutako zuhaitzak zenbat dira Nafarroan?

50 zuhaitz monumentalak edo sinbolikoak dira eta kasu askotan kanpokoak: Diputazio-ko sekuaia, Bertizko zedroa, Erriberriko gazteluko masustondoa... Ale bitxiak dira gehienbat eta ez dituzte ordezkatzeko hemengo zuhaitz zaharrak.

Toki interesgarria da Euskal Herria zuhaitz zaleentzat?

Bai, kanpotik datozenak liluratuta gelditzen dira hemengo aniztasuna ikustean eta nola hamar kilometroten paisaia aldatzen den Mediterraneo aldekoa izateak Kantauri aldeko izatera. Iruñean kopuruz ongi gaude baina antzintasunari dagokionez, Diputazioko



AZKEN HITZA

Krudelkeria

“Euskarabideak izenez jarraitzen du, baina Alberto Catalan iritsi zenetik ez dute ia ezer egiten, UPNk argi esaten duelako euskararen sustapena ez dagoela bere programan. Libururik ez da ia argitara ematen, eta mediateka, toponimia, komunikabideak, euskaltegiak... Horiek funtsezkoak dira eta ez dituzte batere laguntzen. Are gehiago, egiten ari direna krudela da: agindu diru bat eta gero ez eman. Euskaltegietan, komunikabideetan... planifikazioak egin ondoren, horren esperoan daudenean, azken unean esaten diete dirurik ez dagoela. Horregatik zerbait egin nahi dugu kontseilutik. Dimititzeak ez du ezertarako balio, agian mesede eta guzti eginen genieke hori eginez gero”.

sekuoia da zaharrena 160 urterekin, Takoneran zeuden zugarrak galdu ondoren.

Turismoa erakartzeko balio lezakete zuhaitz urtetsuek?

Bai, baina kontuz beti ere, batzuetan bisitak hilgarriak suertatzen baitira. Jendea hurbiltzen da ukitzera, besarkatzera eta besarkada horiek, urteetan zehar, kasu batzuetan hil egin ditzakete zuhaitzak.

Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakari ordea zara.

Erakundea modernizatzen eta eraginkorragoa egiten saiatzen ari gara. Ez da erraza. Hamabost ikastola dira eta oso desberdinak.

Lodosakoa desagertuko da?

Desagertu ez, baina zerbait egin behar dela argi dago. Ikasle bakarra aurre-matrikulatu da datorren urterako.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordean eta Euskararen Nafar Kontseiluan hartzen duzu parte. Bi erakunde oso desberdin, ezta?

Sekulako desberdintasunak daude batetik bestera, bai kideen kopuruan baita egiten den lan bolumenari dagokionez ere. Nafarroan urtean bitan deitzen dute kontseilua, normalean ezer prestatu gabe eta bozketa egiteko gairik gabe. Horrela tramitea betetzen dute eta kitto. Orain uda aurretik deituko dute, teorian, eta gutako batzuk saiatuko gara ea gure proposamen batzuk, bederen, bilkura horretarako onartzen dituzten. Komunikabideei buruzko proposamen bat egin nahi dugu, beste bat interneten Gobernuak egiten duen euskararen erabilera erratikoari buruzkoa eta beste bat helduen euskalduntzea gai duena. Behintzat Iribas kontseilariari buruhausteren bat eman nahi genioke. ■



Liburu azoka

Bilbon, maiatzaren 29tik ekainaren 8ra Arenalean.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

AUZOLAN ESPERIENTZIAK

Espazio libre eta autogestionatua aldarri Egian

Maiatzaren 1ean, eraikina okupatu eta gutxira Ertzaintzak eta udaltzaingoak herritarrek kaleratu zituztenetik, ezagunagoa egin da Egiako (Donostia) auzoetxearen proiektua. Adin eta dinamika anitzen bueltan, egitarren nahiak asetzeko espazio partekatua dute helburu.

| LIDE HERNANDO |

AUZOETXEAREN GARAPEN PROZESUA bi urtekoa izan dela kontatu digu auzotar gazte batek: “Egian urteak generamatzen gaztetxerik gabe, eta duela bi urte saiakera egin genuen, baina gaizki ateratu zen. Orduan gazte asanbladak ez zuen indarrik, baina gaztetxe horren kaleratze azkarraren ostean, antolatu behar ginela ikusi genuen”. Auzolan ekimenak, herrietako garai bateko batzarren sistema berpiztea helburu duen kolektiboak, bilerak egin zuen Trintxerpen, eta hara joatea erabaki zuten. Ikusi zuten Egian eta San Pedron potentzial handia zegoela eta proiektu pilotu bana prestatu zituzten bi eremuotako bizitza kolektiboa indartzeko.

Tradizio kolektibo handiko auzoa

“Egia auzoak betidanik eduki du herri izaera sendoa”, dio auzotarrak. “Herri mugimendu asko daude bertan, abertzaleak, feminismoari lotuak, artistikoak, langile mugimendua... Kapitalismoak mugimendu sozial oro zapaltzeko asmoa du eta daudenak bakoitza bere

aldetik joan dadin nahiago du, denok elkartuta sinergia sortuko dugulako, eta hori arriskutsua da harentzat”.

Auzoan, bestalde, betidanik eduki dute frustrazio sentimendua espazio publikoaren aferatik. Alde batetik, gaztetxeak sortzeko eraikinak okupatzerako orduan zapalkuntza handia jasan dute. Bestalde, auzoko kultur etxeak ez du auzotarren ahotsa ordezkatzeko, eta administrazioaren nahien arabera kudeatzen da. Frontoia estalia da, eta bertan sartzeko ordaindu egin behar dute. Azkenik, Tabakaleraren eraberritzea elitista iruditzen zaie. “Egia Donostiako erdigunearen luzapen bihurtu nahi dute; Tabakalera horren adibide garbia da. Bertan badute talde bat auzotarren hitza entzuteaz arduratzen dena, baina oraingoz ez dugu emaitzarik ikusi eta mesfidati gaude. Betitik izan dugun herri izaera kendu nahi digute”.

Apurka auzoa berpizten

“Auzolan ekimenaren aholkularitza jarraituz, hiru batzar nagusi eta auzolan ekintza bat

Lehenik, auzolanean, Egiako Plazaundi plaza margotu zuten, Egia auzotarrek kudeaturiko espazioa izan zedin aldarrikatuz.



antolatu genituen auzo gisa gure etorkizuna eztabaidatzeko”, dio beste egiatar batek. Aurreko saiakera zapuztuen ondoren, idatzizko proiektu bat egin zuten, auzoaren baloreen manifestua, edozeinek argi izan zezan nondik hasi eta zein bide jarraitu nahi zuten. Joxemi Zumalabe fundazioaren laguntza izan zuten horretarako.

Idatzizko proiektua egin bitartean, adin eta alor ugariak jendea bildu zen batzar horietan, eta askotariko ideiak atera ziren: denbora bankua garatzeko espazioa, tailer feministak, margolaritza edo argazkigintza tailerrak... Proposamen horiek guztiak barnebilduko zituen proiektu moduan, auzoetxearen ideia mahaigaineratu zuten gazte asanbladako kideek. Ordura arte euren helburua gaztetxea sortzea zen, baina auzotar guztien nahiak asetzeko motz geratzen zela ikusi zuten. Egia horren leku bizi eta heterogeneoa izanik, indar guztien metaketa ahalbidetuko zuen espazio bateratua bilatzea ideia ona iruditu zitzaien batzarkideei, besteengandik ikasi eta denek batera helburu kolektiboa garatzeko.

Hasteko, auzolanean, Egiako Plazaundi plaza margotu zuten. Auzotar guztiei luzatu zieten deialdia, eta egun horretan haur, gazte eta zahar aritu ziren plaza denen artean margotzen. Lehen pauso horrekin, Egia auzotarrak kudeaturiko espazioa izan zedin aldarrikatu zuten. “Batzarrak joan, batzarrak etorri, Egiako kolektibo ezberdinetako jendearen artean harreman sendoak sortzen ari zirela ikusten hasi ginen, baita herri mugimenduetan aritu ez den norbanakoekin ere. Auzoko betaroenek diotenez, duela hamar urtetik ez da horrelako mugimendu bizirik ikusi hemen”.

Auzoetxearen ideia martxan zela, etorkizunerako bidea hauspotzeko leku fisiko baten beharra azaleratu zen. “Gure helburua, hala ere, ez zen auzoaren indar metaketa guztia espazio bakarrean kontzentratzea. Azken finean, kapitalismoari terrenoa jan nahi diogu, eta gero eta espazio libre eta autogestionatu gehiago badaude, are hobeto”. Eraikina xede publiko okupatzeko zituzten bi bideak aztertu zituzten: bata, udaletxearekin hitzartzea, baldintza batzuen menpe baina

Helburua gaztetxea sortzea zen, baina auzotar guztien nahiak asetzeko motz geratzen zen. Egia horren leku bizi eta heterogeneoa izanik, indar guztien metaketa ahalbidetuko zuen espazio bateratua behar zuten



Onkologiko zaharraren okupazioak ordu gutxi iraun zituen, berehala etorri baitziren ertzain eta udaltzainak bertakoak kaleratzera. “Horrek ez du esan nahi Egiako auzoetxearen proiektua bertan behera gelditu denik”.

legalki; bestea, okupazioari euren kabuz ekiten. Azken hori hautatu zuten.

Dena ez da okupazioan amaitzen

Hainbat eztabaidaren ostean, Egiako auzoetxearentzako eremu fisikoa izan zitekeena aurkitu zuten. Kutzaren Onkologiko zaharrak, aurrezki kutxaren obra soziala zenak, bost urte zeramatzan itxita. Gainera, egiatarren harridurarako, eraikina bota eta luxuzko etxebizitzak egitea zen Kutzaren asmoa. Onkologiko zaharra okupatzea oso zaila izango zela jakin arren, maiatzaren 1ean ekin zioten planari. “Dataren (langileen eguna) eta lekuaren (Kutzaren obra soziala zen eraikina) sinbolismoa kontuan hartuta, bi aldarrikapen egin nahi genituen okupazioarekin: gure proiektuari estatus fisikoa eman eta, Kutzabanken pribatizazioaren aurrean, obra sozialarekin aurpegia nola zurtzen duten salatzea”.

Igaro da maiatzaren 1a, eta okupazioak ordu gutxi batzuk iraun zituen, berehala etorri baitziren ertzain eta udaltzainak bertakoak kaleratzera. “Horrek ez du esan nahi Egiako auzoetxearen proiektua bertan behera gelditu denik, hemendik aurrera zer egin eztabaidatzen ari gara. Gutxienez, ekintzari esker eta hedabideen oihartzunak lagunduta, gure proiektua Donostian eta hiritik harago ere zabaltzea lortu dugu, eta batek daki, agian beste auzo batzuetan gurean bezalako sinergiak biltzen hasiko dira”.

Hilaren 17an beste aldarrikapen iaialdi bat egin dute egiatarrek: auzoko frontoian bildu dira, Egiako espazio pribatuak publiko bihurtzeko aldarrikatzeko, eta etorkizunera begira eman beharreko urratsak eztabaidatzeko. ■



Pasileku, herriaren bihotza berreskuratzeko proiektua



Erabileran askorik pentsatu gabe egindako eraikin eta guneko hutsak bistarazi dizkigu krisiak. Espazio publiko antzuak saihesteko, herritarrek (hots, erabiltzaileak) eta diseinatzaileak elkarlanean aritzea proposatu dute M-Etxea kolektibokoek. Gernika-Lumoko Pasealekuan abiatu dute proiektua: Pasileku, toki hau berriz ere herriaren bihotza izan dadin.

| MARIJO DEOGRACIAS |

PROZESU PARTE-HARTZAILEA azarotik maizteraz luzatu da, Pasealekuak izan beharko lituzkeen erabilera eta izaeraren inguruan hausnarketa kolektiboa egiteko. Gernikarrek herri osoarentzako aldarrikatu gura izan dute Pasealekua. Inoiz Gernika-Lumon egon denak ezagutuko du lekua: bonbardaketari

eutsi zion U formako herri-eskolak (mutilen eskola, 1885, eta neskena, 1927) eta aurrealdeko plaza erraldoiak osatzen dute gunea. Inguruan baditu aire zabaleko anfiteatroa eta “sacafaltas” balkoia izeneko miradorea. Eraikinaren zati bat bakarrik erabiltzen da. Hantxe daude Hezkuntza Sailaren Busturialdeko

Partzuergoa, herriko jubilatuen elkartearen egoitza, azpikontrataturako umeentzako jolastokia eta Elai Alai dantza taldearen egoitza. Beste erdia hutsik dago, Gaztetxeak utzi zuenetik. Eurak izan ziren Kultura batzordeari proposatu ziotenak denen artean harekin zer egin pentsatzen hastea.

Baina Pasealekuari erabilera eta bizi gehiago emateko gogoia ez da atzo goizeko egitasmoa. Gertatzen dena da, eraikina bera Hezkuntza Sailari atxikia dagoela, eta, bestelako erabilerarik ematekotan, alde bien arteko adostasuna beharrezkoa dela. Hau da, Eusko Jaurlaritzak (behar ez duelako) erabilerari uko egin behar dio eta Udalak proiektua onartu behar du. Kultura Batzordeak prozesu parte-hartzailea sustatzea erabaki zuen, baldintza horiek guztiak kontuan izanik. Helburua, beraz, ez da izan eraikinarekin eta inguruarekin zer egin erabakitzea, baizik eta espazio publiko horren izaera definitzea eta herriari eman beharko liokeen zerbitzua zehaztea.

Prozesuan zehar ikusi denez, Pasealekuaz jende gehienak lehenaldian egiten du berba. Oroitzapenen gunea dirudi gernikar gehientzat, oraindik ere asko izan arren erabiltzaile aktibo. Hala, hasieratik prozesuaren nahietako bat izan da guneak nolakoa behar lukeen azaltzea. M-Etxea kolektibokoek azaldu digutenez, “orainari heltzetik abiatu ginen. Jakinda iraganaren garrantzia, eta mundu guztiak lekuarekiko zuen estimua, zehaztu gura genuen hemendik aurrera Pasealekua zer izatea nahi dugun”. Pasealekuaren erabileren katalogazioa egitea izan zen lehenengo urratsa, Gernikako sarearen barruan Pasealekuak ze paper izan behar duen ezagutzeko.

Donostiako Arkitektura Eskolatik sortutako M-Etxea kolektiboak erabiltzen ez diren espazioak eraldatzea du helburu, antolakuntza eta garapen ekimenetan lan eginez. Halaxe argitu digute Nagore Goñik eta Diego Grisaleñak. Biak aritu dira, Kultura Batzordearen enkaruari erantzunez, Gernikan egindako prozesua gidatzen. Beti argi izan dute Udalaren inplikazioa ere beharrezkoa zela, “parte-hartze prozesua ez delako herriari galdeketa egitera mugatzen, eragile guztien topagunea izan behar du”. Eztabaidari ekin aurretik garbi geratu zen “Udalak etorkizunean egin zitzakeen inbertsioak identifikatutako beharriez erantzuteko izango zirela”. Bestela, konpromiso barik prozesuak hankamotz geratzeko arriskua zuen. Horregatik, Udalaren inplikazio aktiboa bilatu du M-Etxeak, eta tailerretan ere udal talde politikoen orde-

Pasealekuaren ezaugarriak

Eraikinaren azalera guztira: 2.290 metro koadro (horietatik 640, hutsik gaur egun).

Zatika:

- Txiki parka: 410 m².
- Jubilatuen egoitza (bunkerrak barne): 410 m².
- Jubilatuta eta Elai Alai partekatzen duten aretoa: 190 m².
- Eraikin bakoitza: lehen solairua: 510 m², ganbara: 130 m²; guztira: 640 m².

Plazaren azalera: 2.270 m² ditu.

Ezaugarri arkitektoniko azpimarragarrienak:

M-Etxea taldekoei iritziz, sarrera atzeko aldean dagoela, plazatik zuzenean egin beharrean (aldapan kokatzen delako). Eremuaren hasierako diseinuan, izenak dioen bezala, paseatzeko leku legez pentsatuta zen, lorategi eta inguratzen zuten arkupeekin.

Babestutako ondarea: Bunkerra zein erakina horrela sailkatua daude Udalaren plan orokorrean.

karitza bana aritu da herritarrekin batera eztabaidatzen. “Partaidetzaren emaitza aberasgarria da zentzu horretan, alde guztiak bateratzen dituelako: ikuspegi tekniko eta espezializatuek alderdi zehatz hori garatuko dute, instituzioek arlo administratiboa, eta herritarrek herriaren nahia. Horiek guztiak batzen dituen da benetan aberasgarria dena”, diote Goñik eta Grisaleñak.

Hiru asmo nagusi

Egungo erabilerak zeintzuk diren eta Pasealekuak izan beharko lukeen izaera anitzari egiten dioten ekarpena zein den zehaztu ondo-

ren, ondorengoa adostu da: batetik, Gaztetxoendako Txokoa aurreikustea, lonja edo lokalen alternatiba gisa. Gazteak dagoeneko lekuaren erabiltzaile badira, baina erabilera areagotzea ezinbesteko jo da eta horretarako eurekin batera hausnarketa egitea erabaki da. Bestetik, argi geratu da kultur etxearen eta Pasealekuaren

ezaugarriek bat egin beharko luketela, kultur erabilera publikoa osatu beharko luketela bi guneek. Horretarako, proposamen bi egin dira: udal liburutegia Pasealekura ekartzea, edo kultur etxean egiten diren tailerrak Pasealekuan eskaintzea eta, era horretan, *Kultura etxean* liburutegi zerbitzua handitzeko aukera izatea —horrek, ezaugarri teknikez hitz egiten hastea ekarriko luke—. Azkenik, funtsez-

Helburua ez da izan eraikinarekin eta inguruarekin zer egin erabakitzea, baizik eta espazio publiko horren izaera definitzea eta herriari eman beharko liokeen zerbitzua zehaztea



Tailerretan 56 lagunek hartu dute parte, lau egunetan zehar. Aurretik, herriko 40 bat talde, erakunde eta eragilerekin elkarrizketak egin ziren, euren iritzia kontuan izateko.

kotzat jo da gaur egun jubilatuen egoitzan kokatzen diren gerrako babeslekuak eta eraikinak, orokorrean, berreskuratzea, memoria historikoaren eta herriaren ondare izanik, balioan jarri behar direlako eta merezi duten duintasuna aitortu behar zaielako. Udalak ez du ondarea mantentzeko planik indarrean eta eraikinen hondatzea nabarmenagoa da. Pasealekuak kanpotik zein barrutik izan duen utzikeriari buelta eman beharra agerian geratu da, finean.

Prozesu intentsu bezain aberasgarria izan dela aitortu digute M-Etxea-koek. Beharriaz ere ikusi da proiektua gehiago zehazteko eta maiatzean, orain arteko prozesuak eman duena azaldu zaie gainerako herritarrei, orain artekoaren berri emanez eta tailer bikoitza antolatuz: gaztetxoek nolako Pasealekua gurako luketen adosteko eta plazan egin beharreko interbentzioa zehazteko.

Hirigintza soziala

Bistan da, era honetako prozesu parte-hartzaileek luzatu egin dezakete ekimena praktikan jartzeko unea. Baina hirigintzaren planifikazio sozialagoa lortu da, herritarren

“Partaidetzaren emaitza aberasgarria da, alde guztiak bateratzen dituelako: ikuspegi tekniko eta espezializatua, instituzioena, eta herritarrena”, diote Goñik eta Grisaleñak.

inplikazioarekin aurrera aterako den espazio publikoa antolatuko delako. Gainera, arkitekturan eta soziologian aditu direnek egin dituzte gidari lanak. Egungo erabiltzaileek eta etorkizunekoek Pasealekuari eman nahiko lioketen funtzioa aintzat hartzea izan da muina. Tailerretan herriko leku eta eraikin publikoen identifikazioa eta erabileraren diagnosia osatu, eraikinen erabilerak espazioarekin duen harremana definitu eta aurrera begira bete beharko lituzkeen ezaugarriak adostu dira.

Tailerretan 56 lagunek hartu dute parte, lau egunetan zehar. Aurretik, herriko 40 bat talde, erakunde eta eragilerekin elkarrizketak egin ziren, euren iritzia kontuan izateko. Kultura Batzordea urrats guztien jakitun izan da, lantalde bereziari esker. M-Etxearen motibazioa espazio arkitektonikoaren eta hiri-espazioaren erabilera modu proaktiboan ikertzea baita: “Arkitektura espazioen erabilera birpentsatzeko modu egokia da. Errealitate arkitektonikotik abiatzen gara, baina ikuspegi soziologikoa landuz”. Hala, Pasileku prozesuan, Olatz Longarte soziologo gernikarra buru-belarri aritu da. “Herriaren egitura, herriak nola funtzionatzen duen, eragileak zeintzuk diren ezagutzeko eta erradiografia osoa egiteko beharrezkoa deritzogu ikuspegi soziologikoa. Are gehiago, tailerren analisi soziologikoa egiteko ere oso baliagarria izan zaigu, parte-hartzaileen profilak orekatzeko, esate baterako”. ■





Nazioartean Zuhur. fama daukaten bi herriek
INDEPENDENTZIAKOKO bidea hartu baldin badute...

Pagant,
San Pere
Canta

Is fearr lán
doirín de cheird
ná, lán mála
d'ór



...ekonomikoki probetxugarri
dateke nonbait

Juduak ere ohartuko ziren estatu libre
izateak ez zituela bankarrotera eramaten



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Irudiak gezurren aurka, botoak balen kontra

UKRAINAN ARGI geratu da Mendebaldeko hedabide gehienek duten lotsa eskasa manipulatzeko eta propaganda politikoa egiteko. Ez da gauza berria, lehen telebistek zituzten irudiekin lehiatzeko irudi alternatiboak izatea eta zabaltzea zaila zen. Orain, sakelako telefonoarekin edonork graba dezake eta jasotakoa interneten sarreratu. Hala ere, oraindik populazio masak gertutik bizitzen ez dituen gaiak hedabide arrunten bitartez jarraitzen ditu, eta hor manipulazioak eta errusiar-fobiak emaitzak lortzen dituzte. Adibidez, Odesan nazionalista ukrainarrek dozenaka pertsona zibil erre eta hil zituzten tiroz sindikatuen etxean, baina hedabide gehienek berria manipulatuta edota ardurak difuminatu zituzten Kieveko gobernu kolpista babesteko.

Ukraina konplexua da, baina egun bizi dugun egoera azaltzea ez da hain zaila. Kieven estatu kolpe biolento bat gertatu zen otsailean. Broma txarra dirudi kolpistek eta ordena konstituzionala hautsi dutenek demokraziaz eta legeaz hitz egitea jendeak eskura duen arma garrantzitsu bat gaitzesteko: botoa

Mendebaldeak agenda mediatikoaren kontrola jarraitzen du izaten, baina larrialdi uneak pasatzen ari da. Herritarrek grabatu eta interneten zintzilikatu zituzten Mariupoleko gertakariak (armadak desarmaturiko zibilak tirokatuz) eta Donetsk eta Lughanskeko erreferendum egunekoak (botoa ematera zihoazenen aurka tirokatuz). Kieveko gobernu kolpistaren eta Mendebaldeko potentzien bertsioak ez zuen zerikusirik errealtatearekin. Baina, mendebaldar zaleen artean edo Mendebaldeak duen botere mediatikoaren presio eta bazterketa saihestu nahi dutenek aitzaikiak bilatzen dituzte: kolpearen aurkako jarraitzaileen artean jende biolentoa eta ideologia arriskutsukoa topatu dute. Noski, gatazkaren bando bietan horrelako jendea aurkitzea erraza da, kasu honetan eta guztietan. II. Mundu Gerran horrela izan zen ere bai, baina aliatuen arteko ele-

mentu deitoragarriak ez ziren eta ez ditugu erabiltzen nazien jarduna eta helburuak aliatuenekin konparatzeko.

Ukraina konplexua da, baina egun bizi dugun egoera azaltzea ez da hain zaila. Kieven estatu kolpe biolento bat gertatu zen otsailean. Broma txarra dirudi kolpistek eta ordena konstituzionala hautsi dutenek demokraziaz eta legeaz hitz egitea jendeak eskura duen arma garrantzitsu bat gaitzesteko: botoa. Ekialdeko Ukraina erabakitze eskubidea egikaritzea eta hautestontzietara gerturatzea terrorismoaren pare jarri nahi dute. Baldintzak noski ez dira egokienak erreferenduma egiteko, kontua da Kievek ez duela nahi inolaz ere erreferenduma adostu, ez urtebete barru, ez inoiz.

Ukrainarrek lurralde batasuna mantendu nahi badute boterea partekatzen ikasi behar dute, hori modu desberdinetara egin daiteke: gobernu zentrolean desberdinen arteko gobernuak osatuz edota herrialdea deszentralizatuz eta federalizatuz. Egund Ukrainan ez daude hauteskundeak eskualdeetan eta hauen gobernadoreak, presidenteak eta gobernuak hautatzen dituzte zuzenean. Honen aurrean, hego eta ekialdeko biztanle gehienek Ukraina izaten jarraitu nahi zuten harreman federaletan, baina, Kievek ikuskera horretara gerturatzeko asmorik ez duenez, geroz eta gehiago dira pentsatzen dutenak ez dagoela Ukrainan jarraitzerik. Ez da inkompatibilitate esentzial (etniko-nazional) batengatik, proiektu politiko desberdinak dituztelako baizik. Zure lurraldean dauden lehentasun politikoak ez badira islatzen Estatuako proiektuan, normalena da Estatu berri bat erakitzea lurralde horretako borondate demokratiko-politikora egokitzeak. Ukraina ekialdean asmo horrekin burutu dute erreferenduma: botoak armen kontra. Nahiz eta kontsulta egunean Kieveko eskuin muturreko miliziek balak banatzen jarraitu zuten. Tristeia da botoa ematera gerturatu eta bere herritarra zarela dioen gobernuaren aginduetara dauden gizon armatu batzuek zu hiltzea. Horrelako gobernu batekin nork ez luke nahi independizatu? ■





Mikel Garcia

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Donostia low cost

MAIATZAREN 23AN Donostia hirigunean Zara erraldoi bat irekiko dutela-eta, pozarren eman dute albisteak, lanpostuak sortu eta jendea erakarriko duelako.

Ehun lanpostutik gora sortuko omen ditu, baina zein baldintzatan? Aldi baterako kontratuak eta ordutegi ezinezkoak ohiko dira Inditex etxean —eta hala adierazi izan dute langileek eurek, kontratuen %80a baino gehiago aldi baterakoak direla kritikatu—. Azpikontratatuak enpresen aldetik ere, salaketak jaso ditu arropa kate espainiarrak, 15 orduko lanaldiak eta soldata barregariak tarteko.

Jendea erakarriko omen du, baina horrek dirua utziko al du inguruko denda txikietan? Mesede egingo dio herriko merkataritzari ala saltoki-gune handian kontzentratuko da aktibitate ekonomiko-ludiko guztia?

Merkea izango da arropa, baina zeren eta noren ordaintan? Behin baino gehiagotan egon da Inditex esklabotza kasu larrien atzean. Tailer klandestinoetan, etorkin ilegalak, haurrak eta nerabeak izan dituzte atzerriko herrialdeetan, esplotazio baldintzetan jantziak josten.

Espainiako Estatuko Zara handiena izatea (4.200 metro koadro), Donostiako denda

berriaren ohorea, New Yorken dagoenaren parekoa, baina kontsumo eredu (anglosaxoi) zentralizatu eta makro hau al da nahi duguna? Bestelako azpiegiturretara ere zabaldu da eredu horixe —kultur azpiegiturak datozkit gogora—, eta porrot egin du hainbatetan, BEC-en zulo beltza lekuko.

Jendea erakarriko omen du, baina horrek dirua utziko al du inguruko denda txikietan? Mesede egingo dio herriko merkataritzari ala saltoki-gune handian kontzentratuko da aktibitate ekonomiko-ludiko guztia?

Tira, Zaran arropa erosi izan dut, ez dut ukatuko, baina kontutuz ibili beharko gara, makro low cost ekonomia eredu hau hedatzeak, Media Markt-en ordenagailua eta Ikean altzariak erosteak, low cost gizartera eta low cost bizimodura eramatea nahi ez badugu. ■



BERTSO BERRIAK

Ibai Esoain Arruti



Doinua: Itsaso hori dago zatarra.

Anisakisa

Apurtu dira sokak, sareak... Zer josten ditu “sanidadeak”? Korronteen ta haizeen kontra Kantauriko baporeak (bis). Aingurak eta areak asteotako mareak lehertu ditu ur bareak. Haserre daude bata txuriak ta katiuska berdeak txitxare batek mugitzen ditu sabeleko txitxareak.

Zer irabazi ta zer galtzen den jokoan asko baitago hemen ba al dakigu elikadura zeinek elikatzen duen? (bis) Zail da egia jakiten gomendio, irudipen... sartu, irten, sartu, irten... Ta arrazoia hortxe ari da honi eman ta hari ken saltsa honek zeini laguntzen dio digestioa egiten?

Antxo freskoak egin du behera arrantzaleen kostua bera. Osasungintzak jo behar luke arriskuez ohartzera (bis). Galderak dakar galdera ez naiz arriskatzen, zera erantzunak ematera! Hortik aurrera bakoitzak bere ondorioak atera soziedadeko afalostetan plateretik platerera! ■



Mikel Irizar

KOMUNIKAZIOAN ARITUA ♦



DANI BLANCO

Ilusioa, puxika eta lokarria

EUSKAL HIZTUNOK baditugu gure ajeak, baina beste hainbat estrukturalak dira, iraunkorrak. Euskara hizkuntza txikia da inguratzen dutenen ondoan, eta inertzia kontra ditu ia beti. Etengabeko indar horri aurre egiteko beharrezkoa dugu hizkuntzarekiko grina, hizkuntza komunitatea eraldatzeko gogoia berdintasunera bidean.

Baina, grina indartzearekin batera, komeni zaigu euskaltzaleok normalizazioa irudikatzea arnas luzeko prozesu baten modura, itolarririk gabe eta bizipozez hartu beharrezkoa, gabeziarik ardua elikatuko diguna eta lorpenetarik, ilusioa. Ez da erreferentzia txarra Karmelo Ayestaren *Goza daiteke gehiago* liburua.

Ilusioa pizteko ahaleginean, ordea, badira bi arrisku saihestu beharrekoak: konformismoa eta ameskeria.

Konformismoak amets egiteari uko egiten dio eta egingarri ikusten denaren mugak azpimarratzen ditu aldiro. Baina euskararen historiak argi erakusten du zenbateraino izan den eraginkorra muga horien gainetik begirada luzatzea eta haragoko ametsen bila joatea. Esaterako, bertako erakundeak sortu eta administrazio zati asko heredatu zirenean, hainbat kasutan handira egin zen apustu eta erakundeak euskalduntzeko planak ezarri ziren. Eskerrak! Konformismoak

ez zukeen ekarriko gaur egun zenbait administrazio-tan dugun egoera ona —kontrasteak, administrazioan bertan— eta gauza bera esan daiteke ikastolez, komunikabideez, euskara elkarteaz eta abarrez.

Bere aldetik, ameskeriak berehala bete nahi du ametsa, uko eginda egingarritasuna eta erritmoak aztertzeari. Azken hamarkadetan ameskeriaren adibi-

de ugari ikusi ditugu, eta esango nuke hainbat ingurutan sumatzen den frustrazio puntua ere ameskeriak eragindakoa dela, ilargia eskuratu ez izanaren zaputzak. Frustrazioa saihesteko, beharrezkoa da ametsari forma zehatza ematea eta, ahal bada, zenbakitan jartzea; eta gero ametsera daraman bidea marraztea: epeak eta erritmoak, ibilbidea eta tarteko helmugak, funtzioak eta eragileak, baliabideak eta antolamendua.

Horrela bakarrik kudeatu daiteke ondo bilakaera.

Ametsa behar dugu eta doikuntza, airez betetako puxika ameslaria eta lurrari ongi itsatsitako lokarria. Puxikak lokarria jarriko du eguzkiari begira, eta lokarriak puxikari eutsiko dio, haizeak eraman ez dezan. Amets doitua behar dugu: begirada luzaraziko eta handira jokaraziko digun ametsa; eta amestutakoa lortzea eta lortutakoz gozatzea ahalbidetuko digun doikuntza. ■

Frustrazioa saihesteko, beharrezkoa da ametsari forma zehatza ematea eta, ahal bada, zenbakitan jartzea; eta gero ametsera daraman bidea marraztea



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Kanpainen

SARE SOZIALETAKO liskarrei ezin zaie benetako liskar edo eztabaida deitu. Sare sozialetako arrazoiaren aldeko hartu-eman horiek, handiagoa nork ote duen (jarraitzaile kopuruaz ari naiz) argitzeko eztabaidak izan ohi dira normalean.

Hauteskunde bezperetan halakoak propagandaren eta kanpainen oihartzuna bilakatzen dira bat-batean, edo kontra-kanpainenak (erredundantea ez bada esatea hori bera dela kanpaina).

Bi egunetan, maitea behar nukeen koalizio gertukoari bi kritika egitea otu zait twitter bidez. Koalizioaren muturreko defentsak platonikoa egin zuen batekin topatu

nintzen. Ez genuen elkar ulertu. Tutik ez. *Sozialisto* batzuen nire txioaren erabilera iritsi zitzaidan beste baten bidez. Edozein kasutan, batere gustura ez geratzeko bi erreakzio.

Hala ere, uste dut, mugimendu soziale-tako kideoi, botoa sartzen dugun lekuan sartzen dugula ere (sartzen badugu), alderdiei eta kanpainari adi egotea dagokigula.

Argi geratu zait autokritika ez dela gure fuertea (gutxiago “publikoan”), eta ulertzeko gaitasun handirik ez dugula. Ados beraz. Agur txioak, tabernetan egingo dugu topo, betiko lez. ■



«Egia beti iraultzailea delakoan nago, baina nork behar du iraultza bat bere bizitzan?»

Mikel Antzak Atzerri (Susa, 2012) nobela plazaratu zuenean, haren lagun Xabier Montoiari eskatu genion elkarrizketatzaile lanak har zitzan. Orain, Xabier Montoiak *Azken afaria* (Susa, 2013) argitaratu duela, alderantzira aritzeko eskatu genien biei. Kartzelako bisitaldi baten emaitza duzu ondoren datorrena.

| MIKEL ANTZA |

Azken afaria irakurri ostean, elkarrizketa hau prestatzeko zure liburuak eskuratu eta irakurtzen aritu naiz. Irakurria nuen arren, *Non dago Stalin* irakurri berri dut. *Azken afaria*-rekin antzekotasunik baduela esango nuke.

Aspaldi irakurri nuen nobela hori, eta hala izango da segur aski. Pentsatzen jarrita, nire orduko hainbat kezka eta obsesio eta oraingoak antzeko samarrak direla esango nuke. Betiko kontu horien erabilpena, berriz, oso bestelakoa da oraingo honetan. Ordukoan komikietatik eta antzeko beste kontu batzuetatik hartutako osagaiak ageri ziren. *Azken afaria*-n, baina, idazkera guztiz errealista erabili dut hasieratik. Hor dago aldea.

Bazkaria, gonbita itzazu hiru adiskide. Nortzuk dira? Zer jango duzue? Zertaz mintzatuko zarete? Lehenik eta behin zu gonbidatuko zintudake, jakina. Bigarren gonbidatua Josu Landa izan liteke eta Iban Zaldia hirugarrena. Seguru bazkaloste luze eta interesgarria izango genukeela. Menua baratzkizalea litzateke, noski. Halako lagunekin, mintzagaiak bi izango ziren nagusiki: literatura eta politika edo politika eta literatura edo biak batera. Edo auska-


“Oro har, gizon izan edo andre izan, guztiok moztortzen dugu geure burua, horixe da-eta gizartea”.

lo, beharbada futbolaz mintzatuko ginatke. Sekula ez dago jakiterik. Nolanahi ere, ez ginatke batere aspertuko.

Emakumeak aurrean daudenean gizonezkoek beren benetako izaera moztortzen dute ala orduantxe agertzen dute beren benetako izaera, “gizonak izatera” jolas egiteari utzita?

Oro har, gizon izan edo andre izan, guztiok moztortzen dugu geure burua, horixe da-eta gizartea.





JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKIPRESS

Gaua. Tortura, ekintzak, biktimak, errelatu famatua. Kontakizun neutroa, hotza egitea hobetsi duzu. Zer funtzio bete du literaturak euskal gatazkan? Funtziorik bete behar duela uste baduzu, zer funtzio bete beharko luke?

Bai, kontaera hori hobetsi dut. Literaturaren funtzioa? Euskal literaturarena? Egia esan, gutxitan egin dut gogoeta horretaz eta ez dakit zehazki zer esan. Niretzat, eta nolabait adieraztearren, literaturak funtzio asko izan dezake, baina behin ere ez funtzio bakar eta nagusi bat.

Gauaren gaua. Goñi eta emaztea sofan eserita, telebista itzaliaren aurrean, bakarrikzeta mutuan. Zirrarez eta itolarriz irakurri nuen pasartea. Gauaren hondoraino gainbehera hori gaurko egoeraren deskribapentzat hartu nuen. Ez al du etorkizunik gaurko euskal gizarteak?

Berriz ere, ez dakidala esan behar dizut. Duen, ez duen, batek daki. Dakidana da gaur egun askoz gehiago direla hiltzen diren euskaldunak, jaiotzen direnak baino. Hala izanik, nekez irudika dezaket inongo etorkizunik guretzat.

Afaria. Roderak egia esatea erabaki du. Ez al du horrela jokatzek bere lagun minaren samina areagotzen? Beharrezkoa eta osasungarria al da beti, edozein delarik zirkunstantzia, egia esatea, pertsonaia literarioen bidez bada ere?

Bai, segur aski, zuk diozun bezala da. Nik neuk ez dut uste beti egia esatea beharrezkoa edo osasungarria denik. Baina, modu berean,

“Dakidana da gaur egun askoz gehiago direla hiltzen diren euskaldunak, jaiotzen direnak baino. Hala izanik, nekez irudika dezaket inongo etorkizunik guretzat”.

egia beti iraultzailea delakoan nago, norbaitek aspaldi esan zuen bezala. Kontua da: nork behar du iraultza bat bere bizitzan, telebistako iragarkietan ez bada? Literatur pertsonaien kontu hori ere merezi du aipatzea, nik uste. Nolabaiteko enpatia sor dezake pertsonaia batek irakurlearengan, eta horrek beti lagun dezake gehienetan mingarria den egia delakoa ulertzen eta, beharbada, onartzen ere, noizbait.

Liburuaren amaierara iristean sortu zitzaidan lehen galdera: Zergatik desagertzen da liburuaren lehen atal bikainaren ostean bazkaltiarren arteko intelektuala, Salaberria idazlea? Non dago? Salaberria al da narratzailea?

Oso galdera interesgarriak dira horiek, baina aurreko elkarrizketetan egin zizkidatenean, erantzun gabe utzi nituen, barkatuko didazu ez badizkizut erantzuten, ez bainioke nobelaren balizko irakurleari, inolaz ere, nire iritzia inposatu nahi.

Gazteak ginenean Bernardo Atxagari eskaini genion *Susa* aldizkariaren zenbaki oso bat. Gogoan dut ordukoan zuk esandakoa: “elika ezazu lehoia... eta jango zaitu”. Barça taldearen zalea zarela sekretua ez denez, esango al didazu euskal literaturak ez ote duen Espainiako ligaren antzik? Badakizu, Atxaga, Sarri, Uribe, Cano... eta besteak.

Susa hura bosgarrena izan zen, oker ez banaiz. Euskal literaturara iritsi berria nintzen orduan eta gehiegizkoa iruditu zitzaidan

artean ipuin eta poema batzuen egilea omen zen hari ale oso bat, monografiko bat, eskaintzea, Faulkner edo Brecht balitz bezala. Ez nuen ezer ulertzen. Orain, urteek emandako talaiatik begiratuta, aitortu behar zuek zuzen zinetela eta ni oker. Beste kontua. Euskal literaturak badu, noski, antza Espainiako ligarekin, baina halako zerbait gertatzen da beste literaturetan ere. Badira Champions jokatzeko dutenak eta badira kategoriari nekez eusten diotenak ere, badira klub aberatsak eta klub pobreak, badira crack-ak eta horren zorionekoak ez direnak ere.

Literaturan hasiberriak ginela, euskal literaturarako zer izan zitekeen hobe eztabaidatzen genuen, Nobel saridun bat izatea edo erdipurdiko idazle-talde joria. Zer nolakoa da euskal literaturaren sistema 30 urte geroago?

Nolabaiteko sistema literario bat dugu, lehen ez bezala, aje ugariak noski, baina gure inguruko sistema literarioekin alderagarria. Nobel saridunak izateak ez dit batere axola. Okzitanierakoek izan zuten, aspaldi, eta horrek ez zien mesede handirik egin. Nork nahiko luke Camilo Jose Celak irabazitako sari bat, gainera?

Euskal literaturak ez du inoiz dirurik emanen?

Idazleei ez behintzat, edo, hobeto esateko, idazle gehienek ez behintzat.

Duela urte batzuk Euskadi Sariaren aurkako ekimen bat egon zen euskal idazleen artean, Utikan! deiturikoa. Oker ez banago, ez zenuen parte hartu, eta gainera saria eskuratu zenuen *Euskal Hiria Sutan* liburuarekin. Azalduko al didazu zein den zure iritzia Euskadi Sariez eta oro har literatura sariketez?

Hala da. Puntu gehientsuekin ados nengoen arren, ez sinatzea erabaki nuen, eta ondoren ikusiak ikusita, gero eta kontentago nago sinatu ez izanaz. Euskadi Sariez dudak iritzia azaldu baino lehen, utz egidazu sariez, oro har, dudana azaltzen. Saria ematen duenak, edozein sari, ez soilik literatura sariak, bere buruari eman ohi dio. Publizitatea lortzen du bere enpresa edo erakunderako, sos batzuen truke, eta, gainera, kulturaren bultzatzaile agertzen da. Horixe gertatzen da Euskadi Sarian ere. Gainera, orain, niri eman zidatenean ez bezala, idazleak berak aurkeztu behar du bere liburua sariketara.

Zenbat gara? 1.700, 10.000, 40.000, 150.000, 800.000? Kezkatzen al zaitu euskarazko litera-

tura irensten duen irakurle kopuruak? Eta zure irakurleen kopuruak? Ba al duzu harremanik irakurleekin?

Gauza horietako batzuek kezkatzen naute, baina ez oso, egia esan. Benetan axola didana testuaren egokitasuna da, haren kalitatea. Horrek ematen dizkit buruhausterik handienak. Nire irakurle batzuk ezagutzen ditut, noski, eta esan behar dut begirune osoz jakatu dutela beti nirekin, ni haiekin jokatzeko saiatu naizen gisan.

Argitaratzea merezi ez duen literatura liburu askotxo argitaratzen al da euskaraz? Hala bada, ez al zaizu iruditzen horrek jadanik urriak diren euskal irakurle saiatuak uxatzen dituela?

Argitaratzea merezi ez duten liburuak literatura eta kultura guztietan argitaratzen dira. Gurean ere bai, bistan da. Liburu txarrek, edozeinek, irakurleak uxatzen ditu eta, modu berean, liburu onak irakurleak sortzen. Baina, noski, liburu on bat argitaratzeko, txar asko idatzi beharra dago. Kalitatea kanti-tatetik dator. Edonon.

Euskal Idazleen Elkartearen bazkide al zara? Zergatik?

Ez naiz bazkide. Zergatik? Ezin esan. Antolatzeari beharrezko irizten badiot ere, sindikatuak eta horien antzeko erakundeez dudak iritzia ez da oso ona eta, segur aski, horregatik ez dut inoiz sindikatzeko beharrik sentitu.

Lehenengo batean, behin eta berriz sortzen den eztabaida sutsu bezain korapilatsua izan genuen: Nor da idazlea? Selektzioa egiteko irizpideak

jartzen hasi eta hor nahastu ginen. Nor da euskal idazlea?

Inoiz ez dut dudarik izan. Euskaraz idazten duena da euskal idazlea, erdaraz idazten duena erdal idazlea den bezalaxe.

Zergatik itzultzen dira euskal literaturazko liburuak gaztelaniara eta ez frantsesera? "Gaztelanatik mundura", edo "Espainiara" edo, besterik gabe, "euskal herritar elebakar eta alferrengana"?

Ez naiz segur, baina susmoa dut horietako asko zuk aipatutako "euskal herritar elebakar eta alferrengana" edo, areago, euskaldun alferrengana iristeko direla, batez ere liburu horiek erdaraz Euskal Herrian argitaratzen direnean. Gainera, ez da ahantzi behar euskal idazle gehienok "hegoalde-tarrak" garelako eta, beraz, normala iruditzen zait beren harreman asko dakiten beste hizkuntza horretakoekin izatea.

"Euskal literaturak badu, noski, antza Espainiako futbol ligarekin, baina halako zerbait gertatzen da beste literaturetan ere. Badira Champions jokatzeko dutenak eta badira kategoriari nekez eusten diotenak, badira klub aberatsak, eta klub pobreak..."



Nonbait irakurri dut euskaraz literatura ona irakurtzeko itzulpenetara jo behar dela.

Ez bakarrik itzulpenetara, bada-eta euskaraz sortutako makina bat liburu eder. Hala ere, euskaraz ez duguna da *Gauaren azken muturre-rainoko bidaia*, *Istoriorik goibelena* edo *Adimena-ren mugetan* mailako nobelarik, itzulita ez bada, behinik behin. Probestu dezagun.

Dolores Redondoren *Zaindari ikusezina*. Thriller bat, Baztanen. Best-seller bat. Zergatik ez horrelakorik jatorriz euskaraz?

Badira euskaraz idatzitako thriller-ak ere, gero eta gehiago. Hala ere, liburu hori euskaraz idatzi eta argitaratu izan balitz, ez dut uste best-seller bilakatuko zenik, gure hizkuntza-ren egoera dela eta.

Jo eta ma uzten nauen kontu bat orain: euskal idazleak bertsolarien jelos omen dira. Esplikatu zer den hori, nik bederen ez dut-eta zipitzik ulertzen.

Idazleak bertsolarien jelos? Baliteke. Ni, idazle naizen aldetik, beste idazle batzuen liburu-

"Saria ematen duenak bere buruari eman ohi dio. Publizitatea lortzen du bere enpresa edo erakunderako, sos batzuen truke, eta gainera, kulturaren bultzatzaile agertzen da. Horixe gertatzen da Euskadi Sarietan ere".

ruen jelos egongo nintzateke, baina bertsolari baten jelos, ez dut uste. Beharbada, idatzi bainoago idazle izan nahi duten batzuk egongo dira bertsolarien jelos, haien itzala gure gizartean idazleena baino handiagoa izanik, azken aldian.

Xangreak jota al dago euskal literatura?

Ez dut uste, edo ez beste literaturak baino joago, nolanahi ere.

Hormetan ere mikrofonoak dituzten toki diskretu honetan, egiguzu konfidentzia bat: zenbat nobela bota (edo tiraderan gorde) dituzu?

Hiru nobela kaxkar eta ipuin berdin kaxkar mordoxka ere bai.

Itzuli al dute zure libururik beste hizkuntzaren batera? Egin al duzu ahaleginik?

Liburu osorik ez, baina ipuin solteak bai. Egia esan, behin ere ez dut itzulia izateko ahaleginik egin. Alferregia naiz horretarako.

Zure liburuak irakurtzean sortzen zaidan galdera: Zerk egiten ditu zorigaiztoko hormaz bestaldeko biztanleak?

Hormaz bestaldeko biztanleek, beste inongoek bezalaxe, makina bat arrazoi dute zorigaiztokoak izateko, zure aldekoek beste, nik uste. Lanik ez dutenak lan ezak egingo ditu zorigaiztoko. Lana dutenak, berriz, beren lan baldintzek. Antzera gertatuko da maitasun faltan dabilzanekin, baita maitasuna izan bai, baina haiek nahiko luketena ez dutenekin. Ikusten duzenez, ez dago arrazoi edo aitzakia falta. Gainera, hala izan da beti eta aurrerantzean ere hala izango delakoan nago. Gure izaera da, eta horrekin bizitzen ikasi beharra dago.

Hegoaldeko literatura, Iparraldeko literatura. Nabarmena da bi estatuek eragindako zatiketarik literaturan duen eragina. Zure liburuetan ahalegin berezia nabarmen izan da euskara batutik harago pertsonaiak eta giroak euskalkien bidez nabartzeko, sinesgarri egiteko. Hendaie plage. Ez al da sortzen ari (sasi-)mugako literaturaren belaunaldi bat?

Nire liburu guztiak batuaz idatzita daude. Nire pertsonaia guztiak euskaraz solastatzen dira. 'Ederto' idazten dudanean, batuaz ari naiz, eta berdin, 'ederki' idazten dudanean ere. Hori argi utzita, egia da polifonia funtsezkoa iruditzen zaidala literaturan eta, bereziki, nobeletan. Zuk aipatutako (sasi-)mugako literatura hori ez dut ezagutzen, baina, noski, baliteke hala izatea, ni horretaz jabetu ez arren. Dena den, bi aldeetako literaturak gero eta elkarren antz handiagoa izango dutela uste dut. ■



Euskal letren plaza berezitua Zarautza aldatu da

Udaren atarian heldu da Literaturiaren 6. edizioa. Aurtengoan, Larrabetzu utzi eta Zarauzko herriak egingo dio tokia euskal literaturaren hitzorduari, urtetik urtera hazi den ekimena izaki, azpiegitura hobea behar duelakoan. Auzolana du oinarri Literaturiak, eta literaturzaleen bilgune ez ezik, argitaletxe, sortzaile eta kultur ekintzaileentzat erreferentzia bilakatu da. Maiatzaren 28tik ekainaren 1era.

| MYRIAM GARZIA |

LITERATURA ESKOLAKOEN ausardiari zor zaio Literatura. Duela sei urte ekin zioten bideari, Larrabetzuko eskolako jolastokian, dozena erdi argitaletxeren liburuak salduz eta zenbait hitzaldi emanez, asteburuan. Literatura txiki hura hazi egin da ordea, eta egun, euskal literaturaren plaza esanguratsua izateaz gain, protagonismo handia eman dio sorkuntzari.

Gotzon Barandiaran antolatzaile eta idazleak gogoratu digunez, 10 urte dira dagoeneko sortu zela, “Literatur Eskolaren ekimenez, eta honen ingurura batutako sarearen bidez sortu genuen Literatura, berari soilik eskainitako espaziorik ez zuelako euskal literaturak. Euskaraz eta literaturaz jardungo zuen plazaren beharra ikusten genuen. Plaza zer da? Erakusleihoa, baina baita jendea elkartzeko tokia ere. Hasieratik otu zitzaigun Larrabetzun egitea, eta bertako herritarrok hartu behar genuela antolaketa geure gain. Gero eta handiagoa izan da lantaldea eta hartu duen ardura. Herritarren lanari esker atera da aurrera”.

Hala ere, Literatura handitzen joan den heinean ardurak ere banatu egin dira eta larrabetzuarrak ez dira bakarrik egon. Literatura Eskola ez ezik, beste elkarte batzuk ere beregatu ditu Literaturiak, EHAZE edota 111 Akademia kasu. Baina Larrabetzu herri txikia da, 2.000 biztanle ingurukoa, “eta besteak beste, azpiegitura eta finantziario mugak agertu dira. Nahiz eta Larrabetzuko Literatura erreferentzia izan, ziklo bat bete zela oharu ginen”, aitortu du Barandiaranek.

Zarautzek literatur tradizio handia du, idazle asko dago, hango Garoa liburudenda ere gogor dihardu, gaztetxea ere badu, udalak kulturaren asko inbertitzen du, eta halaxe era-



baki zuten Zarautza aldatzea eta Literatura beste lantalde baten esku uztea. Zarautz Ehuntzen plataforman hainbat kultur eragile biltzen dira, eta “haien lan egiteko modua eta

Egitaraua

Maiatzaren 28an. *Herri 1, 11 irakurle eta literatura.* 19:00, Torre Luzea parkea.

Maiatzaren 29an. *Harri eta Herriek 50 urte.* Karmelo Landa eta Saroi Jauregi. 19:00, Yubionea (San Pelaio auzoa).

Maiatzaren 30ean. *Litera-tourra,* Bada teatroa. 18:30, Musika plaza.
• *Ettxepare Rap,* Imanol Epelde. 77, Bide Ertzean. 19:00, Modelo aretoa.

• *Petti idazleen kantari.* 23:00, Barley taberna.

Maiatzaren 31n. Liburu azoka. 11:00-20:00, Zigordia plaza.

• *4 liburu, 4 idazle, 11 irakurle.* 11:00-12:00, Musika plaza.

• 2014ko liburu berrien aurkezpen solasaldiak. 12:00-14:00, Garoa liburutegia.

• *Inpromatxa.* 13:00, Putzuzulo gaztetxea.

• Zarauzko idazleen irakurraldia. 17:30, Zigordia kalea.

• Haurrentzako ipuinak. Iñaki Zubeldia. Arratsaldeko 17:30etatik aurrera, Soraldean.

• *Xabier Montoiaren mundu miresgarria.* 19:30, Marina Txiki taberna.

• *Gabrielen Lekua* sentikaria. 22:00, Modelo aretoa.

Ekainaren 1ean. 2014ko liburu berrien aurkezpen solasaldiak. 11:00-13:00, Soraldean.

• Bertso-nobela: *Hodeien Adorea.* Felix Zubia, Iñigo Mantzizidor *Mantxi* eta Yoseba Peña.

13:00 Musika Plazatik. 13:45, Marina Txiki taberna.

• *Urak ttiki dire,* Gilkitxaro antzerki taldea. 17:30, Soraldean.

• Poesia errezitaldi kolektiboa. 18:30, Soraldean.

gurea oso antzekoak dira”, azaldu du Barandiaranek. “Literaturia ez da leku bat, literaturaren plaza da, eta Larrabetzun, Zarautzen, Laudion, Hendaian edo Atarrabian egon daiteke. Baina ezinbestekoa da lekuan lekuko lantaldea egotea eta lantalde horrek herria dinamizatzea”.

Euskal herriko leku guztietatik etorritako idazleak, sortzaileak, argitaletxeak, irakurleak, zaletuak, kontsumitzaileak izan dira Literaturian eta honek izaera nazionala ematen dio ekimenari.

Literaturiak liburuari erreparatzen dio, baina beste zenbait adierazpide ere oso hurbilekoak ditu. Barandiaranen arabera, “sortzaile garenok profil bat baino gehiago dugu, literaturazale, hartzaile, antolatzaile, idazle eta abar gara, eta Literaturian elkartu egiten gara lagun giroan”.

Kultur adierazpen bakoitzak bere plaza

Tamainaz eta formaz, Literaturiak Durangoko Azokarekin zerikusirik ez badu ere, euskal literaturaren udaberriko hitzordua izan nahi du. Hala ere, Gotzon Barandiaranen ustez, “Durangoko azoka euskal kulturaren azoka da, ez da soilik literaturarena. Literatura, beraz, atal bat da, eta euskal literatura, atalaren azpiatala. Zoritzarrez, ez da nagusi. Durangoko azokan euskaraz ez den literatura da nagusi”. Ildo honetatik Barandiaranek plaza sektorialak proposatzen ditu, hau da, diziplina bakoitzak, musikak, antzerkiak, literatura eta bertsolaritzak bere espazio berezitu izatea. “Euskal kulturarako oso garrantzitsua da zertan ari garen erakustea. Horren harira, kultur adierazpide bakoitzak plaza bana izango balu, oso osasungarria izango

litzateke. Durangoko azoka ere indartuko luke. Kendu baino, gehitu egingo lioke. Plaza bakarra baduzu, leku gutxiago izango duzu”. Durangoko azokarako argitaratzen dena masifikatu egin dela iruditzen zaio Barandiarani: “Ahotsenean izan dudana esperientziagatik,

esan daiteke bertan aurkezten diren liburu eta diskoen %90ek gerora ez dutela oihartzunik eduki”.

Euskal Literaturaren plazak irakurzaileak ere behar ditu. “Ohikoa ez den hori erakartzea da orain erronka. Larrabetzun lortu genuen literaturarekin zerikusirik ez zutenak erakartzea. Askok, Literaturiari esker, euskal literatura berbagai izatea lortu dugu”.

Hala ere, lortzekotan, gogotik jardun behar, eta urte luzetan: “Herri mugimenduetatik egin bada, behetik eta diru iturri publikoetatik kanpo, askoz ere lan handiagoa egin behar duzu. Konparatu besterik ez dago, Euskal Herrian badira jazz, folk ala rock jaialdiak, hasieratik dirutza izan dutenak, BBK Live bera; oso epe motzean 0tik 500era egin dute. Gureak herritarron borondatez eginak dira, inoiz ez era profesionalean. Guk ere milaka euro edukiko bagenitu, milaka lagun hurbilduko lirateke Literaturiara”.

Literaturiak ez du erakunde publikoetako diru-sarrerarik. Aurtengo edizioan, ekitaldietan parte hartuko duten sortzaileen ordaina eta baliabide teknikoak estaltzeko lain eman du Zarauzko Udalak. Borondatezko lana ezin saihestu, beraz. “Izaera herrikoia ezinbestekoa du Literaturiari”, diosku idazleak, “euskal kulturara apurkak besterik ez baitira bideratzen”. ■

“Euskal kulturarako oso garrantzitsua da zertan ari garen erakustea. Horren harira, kultur adierazpide bakoitzak plaza bana izatea oso osasungarria izango litzateke”

Gotzon Barandiaran





Helduen Literatura

Odolaren deia
Iñaki Irasizabal
Elkar, 2014

Ildo berean

ASPALDI elkar ikusi gabeko bi anaien harremanari buruzko istorioarekin itzuli da Iñaki Irasizabal. *Igelak benetan hiltzen dira* (2011) eta *Bizkartzainaren lehenbizitako* (2013) irakurri ondoren, esan daiteke, *Odolaren deia* (Elkar, 2014) izendatu duen azken eleberriak idazlearen tematika eta kontaketa estilo berdintsuari heltzen diola. Honetan ere, gizartearen analisi-deskripzio bati ekiteaz gainera zirkulu familiarrean gertatzen den tragedia aurkituko dugu.

Bi anaiek gazte garaitik ez dute elkarren berririk izan eta bakoitzak bere bizitza ahal bezala bideratu du. Gorkak asteburuetan pub bateko zerbitzari lanetan arituz egiten du aurrera. Ez du familia eredugarri esaten den gisako ezer eraikitzea lortu, baina, Nadia eta Gica, amaseme errumaniarrekin partekatzen du bere mundu pertsonala. Gorkak aspaldi galdu zuen bere familiarekiko kontaktua iraganeko hainbat gertakari gogorrek bultzaturik. Eta hala izan dadin nahiago duen arren, odola, odola da, eta beti izango gara sendi bateko partaide. Aldiz, eleberri osoan barrena anonimoki aurkezten den Gorkaren anaia enpresari txikia da. Bera ere ezkondegabea, baina aspaldiko bikotearekin seme-alaba banaren aita.

Familia ez estereotipatuen irudia bilatu du idazleak, errealistagotzat jotzen baitu gaur egun ikusten dugun aniztasuna islatzea, eta testuinguru horretan bi anaien arteko erlazioa txertatu du. Narrazioaren tentsioa *in crescendo* joango da hastapenetik planteatzen diren zenbait enigma argituz doazen neurrian: Zerk eragin zuen Gorka familiatik aldentzera? Zenbateraino gara gai familiaren alde emateko? Zein punturaino pentsa genezake familiak, gure odolaren odolak, traizionatu gaitzakeela?

Urte askoren ondoren ustekabeen harrapatuko du Gorka, bere anaia aitaren heriotzaren berri emateko deitzen duenean. Anaiaren dei fatalak iraganeko mamuen kutxa zabalduko du eta polik-poliki, bere identitate ordura arte anonimoa agerian geratuko da. Aldi berean Gorka, odolaren senari jarraituz, ezin pentsatuzko gertaeretan sartua ikusiko da: pederastia, txantaiak, sexu-abusuak, eta abar. Irasizabalen eleberrietan ohikoak diren gaiak, alegia.

Odolaren deia anaien arteko erlazioan gorpuzten den eleberria da. Pertsonaien natura, familia bereko partaide izatean definitzen da, eta horrek ematen die ekintzei esanahi eta pisu berezia. Hortaz gainera, ez diot eleberri honi deus originalik aurkitu, eta idazlearen ibilbide linealaren erakusle iruditu zait. Hortaz, jada ezagutzen dutenek ez dute ezer berririk aurkituko, eta ezezaguna zaionarentzat ez dezala momentu entretenigarri bat pasatzea baino espero. ■

Saioa Ruiz Gonzalez




Haur eta Gazte Literatura

Ardura hartzeak ez du dena alde

SESGAÑAKO Catuxak –bederatzi urteko neska futbolzalea– Xildas izeneko iratxoak aurkitu du herriko plazatik gertu, tokitara joan zaion baloiaren bila jo eta zoko ilun batean sartu behar izan duenean. Iratxo kiras-dun eta bihurria negarrez ari da,

Xildas
Antonio
Manuel Fraga

Itzultzailea:
Garbiñe Ugarte
Grazianteparaluzeta
Sushi Books, 2013



bakarrrik eta galduta dago, bere bizitokira heldu ezinik. Catuxak, mesfidati baina errukituta, ingurune aproposa aurkitzen lagunduko diola agindu dio Xildasi, eta hala, Uxia eta Ulises lagunak eta Vicente, beti zampak ari den ikaskidea, bidaide dituela, oinez hamar bat ordura dagoen basoraino joango dira, ezkutuka eta isilka, gurasoei baimenik eskatu gabe. Bidaian iratxoaren bizimodu eta ibilerak ezagutuko dituzte, eta azkenerako, Vicenteren bihotz ona deskubritzeko parada izango dute. Artean kalapitak ere biziko dituzte, ordea, eta trantze txarra pasatu beharko dute gurasoen aurrean.

Gogoetara garamatza liburua- ren amaierak: haur koskortuek egiten dituzten bihurrikerien zer- gatiez, eta bihurrike- riaren ordainetan ezartzen zaien zigo- rrez, hezteko meto- doez. ■



Garbine Ubeda
Goikoetxea

Erromantikoak

SAIO ERROMANTIKOA proposatu digu Euskadiko Orkestra Sinfonikoak edizio honetako 10. abonukontzerturako. Txaikovskik eta Schumann-ek, hain desberdinak sentimenduak azaleratzeko erabiltzen dituzten bideak aukeratzekoan, ordubeteko saio disfrutagarria eman ziguten. Hori biribiltzeko, izartxoaren Alexandre Da Costa biolin jotzaile kanadarra (azkenaldi honetan hemen sarritan entzuten duguna) eta John Axelrod zuzendari bitxia izan genituen taula gainean. Dibertigarria.

Zein ederra den Txaikovskiren Biolin eta Orkestrarako re maiorreko kontzertua, op. 35. Lehenengo mugimendu maiestatetsua, dotorea, publikoaren begikoetako bat da, eta ez da harritzekoa. Konpositorearen irudimen melodiatsua modu apartaz agertzen da lan honetan. Melodiak kateatu egiten dira bata bestearekin, doinu-orgia bat eginez. Nahiz eta forma aldetik bitxikeriak eduki, erraz eta gustuz entzuten da. Aldi honetan, gainera, bertsio aipagarria izan genuen, ez dakit nahita edo nahi gabe, baina kontraste harrigarria sumatu genuen bakarlariaren eta zuzendariaren ikuspegiaren artean. Axelrodek partituraren “ertzak” azpimarratu zituen, irakurketa nolabait gogorra eta erritmikoa eginez. Da Costak, aldiz, melodia gozo eta bigunak marraztu zituen. Agian “hozkada” gehiago espero edo nahi genuen, baina, tira, kontraste interesgarria suertatu zen, ezohikoa. Hori bai, Da Costa bertuoso akatsgabea da, estilo guztiak menderatzen dituena. Halaxe frogatu zuen bisetan, non mundu klasikotik rockaren estetika pasa zen arazorik gabe.

Erromantizismoaren beste aurpegi bat dastatu genuen saioaren bigarren zatian. Schumann-en mundu estetikoak ez dauka zerikusirik beste erromantikoekin. Haren musika eta literatura beti oso lotuta ibili dira. Pianorako obrek, adibidez, askotan, erreferentzia literarioak dituzte, konplexutasun intelektual berezia emanez musikari. Haren 4. Sinfonia,

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak

Zuzendaria: John Axelrod.

Bakarlarria: Alexandre Da Costa (biolina).

Egitaraua: Txaikovski eta Schumann-en obrak.

Lekua: Bilboko Euskalduna Jauregia.

Data: Apirilaren 30a.



BO HUANG / EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

re minorrekoa, op. 120, ez da garai hartako sinfonia estandar bat. Hasteko, lau mugimendu ditu, gainera elkarloturikoak, eta itxura programatikoa du, imajinatiboa. John Axelrod zuzendari estatubatuarak obraren irakurketa dinamikoa egin zuen, bere estilo pizgarri eta biziarekin. ■

Montserrats Auzmendi



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

Beltzak zuri eta zuriak beltz

IBAI ARRIETA

HAUSNARKETARA emana dago Joxan Artze Idoia Beratarbidek *Nola belztu behar zuria* ikuskizunerako sortutako irudian. Haragizko Joxan Artze, baina, lurtarrago azaldu zen Usurbilgo Sutegira. Ikusmina zuen. Kalera-tu berri dituen *Bizitzaren atea dukegu heriotza* eta *Heriotzaren ataria dugu bizitza* poema liburuetatik mailegatutako olerkiekin sortu dute espektakulua. Ehunka olerki artean hogeita hamarreko sailkapena egin zuten Bide Ertzean taldeko kideek, Oier Guillanek eta Asier Sarasolak. Zeintzuk aukeratu ote zituzten jakin nahi zuen egileak. Lehenengo ilarako bertigoari muzin egin zion eta atzerago jesarri zen emaztea alboan zuela. Gau berezia bizi izan zuen gainezka zegoen Sutegi aretoan. Egia esan, uste dut bertaratutako denok bizi izan genuela.

Rock kontzertua ez zela nabarmen geratu zen hamarretatik hamar minutu joanak zirenean bost gizon oholtzaratu zirenean. Hiru musikari eta olerkari bi. Sarrera-txaloak. Artzeren ahotsa pop doinuetara bes-telakotu zen Oier Guillanek eta Asier Sarasolak poesia esateko hain duten modu ezberdinarekin nahastuz. Ordu bete inguruko saio samurra izan zen, une eder asko izan zituen. Eragozpen txikia aurkitu nion nik kontzertuari: txaloak. Interruptus etenbakoa izan zen, ezin hitza eta musikaren uztarketari bide egiten utzi, eta iruditzen zait, artistek bazutela taxuzko atmosfera lortzeko asmoa, ondo harilkatutako gidoia zeramatela, tempoak ondo neurtuak zituztela, eta isiltasunak ere bai. Txaloaldien etenak behin eta berriro eramaten zintuen hasierara. Ezin erabat sartu prestatu zuten giroan. Uste dut hobea izan zitekeela eta hobea izan daitekeela. Alegia, txalorik ez emateko eskatu behar dela. Ez naiz nor txaloak debekatzeko, eta ez naiz hasiko txaloen gainean saiakera egiten (honen harira, Edo argitaletxeak kaleratu berri du Harkaitz Canoren *Txalorik ez, arren*) baina... zer gertatuko litzateke txalo guztiak amaierarako gordeko bagenitu?



Nola belztu behar zuria. Joxan Artzeri omenaldia

Partehartzaileak: Bide Ertzean, Oier Guillan, Asier Sarasola, Zuaznabar neba-arrebak, Joxan Artze. **Non:** Usurbilgo Sutegi.

Noiz: 2014ko maiatzaren 3, larunbata. 22:00

Uler dezazun: Bide Ertzeanek kantu bilakatutako poema amaitu egin zuen: "...elkar maite dutenek/maitasun argiz/egunetik egunera/maitago eta argiago". Abestia amaitzerakoan isiltasun ahalegina. Eta horretan barneraturik gozamenak hartzeaz zintuelarik; Plas, plas, plas. Kitto, istanta. Agur, unea. Egin dezagun errealtate paraleloa: Bide Ertzeanek kantua amaitzen du: "...ez hala hark behin batez/piztu zigun edertasuna/bihotzetik, bihotzetik". Doinuaren azken-azkenak eta isiltasuna. Handik gutxira hura apurtuko duen ahots bakar bat, Artzeren hitzak gorpuztuko dituen. Hobeto, ez? Sarrerarekin batera txaloak gordezko zorroa eman beharko lukete.

Unerik ukigarriena akaberak ekarri zuen. Omendua, hots, Joxan Artze gora igo zenean. Hitz jostunak ezin izan zion hunkidurari eutsi. Urduri zegoen. Emozioa sentitzen zen eta Artze, tarteka, arnasa hartzeko (edo hitz egokiak aurkitzeko) mututu egiten zen. "Zentratu, Joxan-

ton, zentratu zaitez" ziotsan bere buruari emazteak sarri esaten ei dion mantra errepikaturik. Emaztea eta Txaro arreba izan zituen aintzat poetak. Gustatu zitzaion Jexux Artze Kultur elkarteak eman zioten oparia: Jose Luis Zumeta margolariak egin eta Usoa Zumetak serigrafatutako lana. Eta gustatu zitzaion Zuaznabar senitarteak lehengo eran txalaparta jo zutenean.

Sutegik su hartu zuen azken kantua-rekin, Mikel Laboak Artzeren berbeekin hain ezagun bihurtu zuen "Txoria txori"-rekin. Bertan zeuden musikariengana jo beharrean grabazio bat ipini zuten; Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera egin zuen kantu. Beharbada Bide Ertzeanekoez jo izan balute, agian jendea bapatean abesten hasi izan balitz, baina grabazioa jartzearena... ez dakit, niri neuri, aitortu behar dut, gutxien gustatu zitzaidana izan zen. ■

**Goizalde
Landabaso**





Euskal Herria ezagutuz

BEDAIO, TOLOSA (GIPUZKOA)

Muga berdeen magalean

Zazpi herrik ukitzen dituzte haren lurrak, baina bere udalerriak ez. Tolosako auzoa izan arren, ez baitu harekin inongo harreman geografikorik. Horregatik, kolorez aldatzen diren mugetara lotu da Bedaio, marroi udazkenean, berde udaberrian. Mendien itzalpean edota Artubiko gainean, ozen diote auzo izena eduki arren herri izaera dutela.

Testua eta argazkiak:

| ENERITZ IRAOLA ODRIOZOLA |

ALEGIATIK Amezketa alderantz doan errepidean ezkerretara jota hartuko dugu Bedaiora eramango gaituen bidea. Ugarten barna gorantz segituko dugu, parez pare Balerdi mendia zelatan dugula. Bidegurutzetik zazpi kilometrora dago gure ibilbidearen hasierako puntua, baina aurretik bidean geldialdi pare bat egitea komeni zaigu, mendetan zehar iraun

duten altxorak baititugu esperoan.

Errepidearen ezkerreko aldean, gure arreta erakarriko du antzinako baserri batek. Egurrezko habez eta oholez osatutako aurrealdeak agerian uzten du Zugasti Barrena erai-kin historikoa dela. Arkitektura tradizionalako baserria da, eta diotenez, Bedaioko lehenengo erai-kinetako bat.


Gurbil Haundi

Errepidera itzuli eta aurrera egingo dugu bidean. Arretaz gidatzea komeni da Gurbil Haundi baserriko seinalea ikusi arte. Ezkerretara egin eta bidexkatik iritsiko gara Gipuzkoako baserririk handienetakoen artean katalogatua izan dena. Haren ezaugarriarik bereziak ikusi nahi badugu bidean pixka bat gorantz egin beharko genuke. Goiko ikuspegi horretatik argi agertuko zaizkigu baserriaren lauki forma eta erdiko patioa. Historian hainbat erabilera izan ditu eraikinak, baina batez ere garai batean kartzela izan zelako da ezaguna. Nafarroa eta Gipuzkoa arteko pasabidean dagoenez, karlisten gerra garaian kuartel bezala ere funtzionatu omen zuen.

Baserri bidean atzera egin eta errepidera itzuliko gara. Minutu gutxiren buruan iritsiko gara Bedaio Goikora. Aralarko Parke Naturaleko sarrerako kartelak egin digu ongi etorria. Mendiko oinetakoak jartzeko garaia heldu da orain, Artubira (1.254 m) igotzea baita mendizaleei egingo diegun proposamena. Agerikoa da bedaiotarrek maite dutela Aralarko tontor

Ikuspegia Arritzagako bidegurutzetik.





Ezkerrean, Plazegiko iturri ederra. Eskuinean, Zugasti Barrena, Bedaioiko eraikin zaharrenetako bat.

hori, Tolosako punturik garaiena. Bedaiori azken hoge urteetan bizia eman dion kultur elkarteak ere horixe du izena. Auzolanaren bidez, herri izaera hori indartu dute eta horren adibide dira antolatzen dituzten ekitaldiak: Mendi eta BTT proba, Zaldi Raid-a eta ingurutxoak, besteak beste.

Artubirantz

Lokarriak lotu ondotik, txanpon batzuk poltsikoan hartzea hobereena. Kukuaren kantua bidelagun izaten da txoko hauetan. Eliza ezkerretara, ondoan Abaetxe jatetxea eta frontoia ditugu. Frontoia aldean seinale batek erakusten digu Artubirako bidea. Lerro zuri-horiak (GI-112) izango ditugu gidari. 25 minutu ondoren bidea bitan banatzen da. Ezkerrekoa da guk hartu beharrekoa, metalezko langa duena.

Segidan, pagadi eder batera iritsiko gara eta pixkanaka altuera hartuko dugu. Bidegurutze batera era-

mango gaitu bideak eta bertako seinalean *Plazegiko iturria* eta *Bedaio* irakur ditzakegu. Langa pasa eta iturri ederrean ase dezakegu egarria. Dena den, okerreko biderik ez hartzeko hoberena atzera egin eta seinalea dagoen tokira itzultzea da. Bertan seinalea parez pare dugularik eskuinerantz jo behar dugu.

Txindokiren deia

Hemendik aurrera gidariz aldatu eta marra zuri-gorriek seinalatuko digute bidea. Ttiriki-ttarraka 40 minutuz aurrerantz egingo dugu. Ibilbidearen zatirik xamurrenetakoa dugu hau, bideak lautadak zeharkatu eta zenbaitetan beherantz ere egiten du Larrondora iritsi aurretik. Indarrak berreskuratzeko leku aproposa da Kalekuko iturria. Lerro zuri-gorriak berriz topatu eta eskuinerantz joko dugu bidegurutze batera iritsi arte. Txindoki dugu aurrez aurre, kukuka eginaz. Hainbat ibilbide lotzen dira puntu hone-

tan, eta guk Arritzagarako bidea hartuko dugu.

Igoera gogor xamar baten ondotik, Arangoen bordara iritsiko gara. Aurrera segitu eta arantzadun hesia ikusiko dugu. Bide nagusiak Arritzagara garamatza baina guk mende balderantz jo eta hesiaren albotik jarraitu behar dugu. Lurzorua bera ere aldatuz doala sumatuko dugu, Balerdi inguruan ohikoa den harkaitza ugaritzen baita. Helmuga hurbil dagoen seinale. 40 minuturen ondoren, Artubiko gutunontzira iritsiko gara. Abaetxe jatetxean ongi irabazia dugu otordua. Etorritako bide beretik goaz bueltan txoko lasai bezain bizira, muga berdeetan barna. ■



Bisita tu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.



Ekainaren 5ean Bedaion HARRI JAIA

Duela urte asko egin zuen harri jasa gogora ekartzen duen festa. Egun paregabea bertako giroa eta ingurua ezagutzeko. **Animatu eta etorri Bedaio ezagutzera.**



Hondartzan paseatzearen hamaika onurak

OINEZ IBILTZEAK onurak dakartzkio beti gure gorputzari. Ariketak odol-fluxua estimulatu du, eta horrek mesede egiten die bihotzari eta zangoi. Eta ibiltzea komenigarria bada, ez dago horretarako hondartza eta bertako harea baino leku egokiagorik, baldin eta eguzkiaren izpietatik behar bezala babestuta bagaude.

- **Kaloria gehiago erreko duzu, muskuluak indartu eta susper-tzeaz gain.** Hondarrean ibiltzeak asfalto gainean ibiltzeak baino esfortzu handiagoa eskatzen du. Itsasertzean modu erregularrean ibiliz gero, zure orkatila eta zangoek berebiziko hobekuntza nabaritutako dute, eta gain-pisua gehiago kontrolatuko duzu. Kalorien halako bi gastatuko duzu, izan ere.

- **Zirkulazioa bizkortu eta barizeak prebenituko dituzu,** itsasoko olatuek zangoen kontra egiten duten mugimenduen eraginez. Horrez gain, itsasoko uraren iodoak eta sodioak zahartze-prozesua moteltzen dute.

- **Osteoporosia izateko arriskua gutxitzen da.** Oinez ibiltzeak hezuraren dentsitatea handitzen du, eta eragin hori biderkatu egiten da hondartzan, ibiltzeko esfortzua handiagoa delako batetik, eta bestetik eguzkia hartzeak, larruazala behar bezala babestuz gero, gorputzari laguntzen diolako D bitamina sintetizatzen. D bitamina ezinbestekoa da kaltzioa hezurretan finkatzeko.

Masaje erlaxatzaile eta aldi berean terapeutikoa

Hondartzan paseatzeak adimenari ere egiten dio mesede. Erraz uler daitezkeen bezala, ez dauka eragin “lasai-



tzaile” bera hiriaren erdian edo itsasertzean ibiltzeak. Eta, gainera, oinutsik ibiliz gero hondar aleek masaje moduko bat emango diete gure oinetako ehunka nerbio-bukaerei; sekulako plazera sortzen du horrek. Nerbio-bukaera horiek lotuak daude, adituek diotenez, hainbat bizi-funtzioarekin, eta funtzio horiek ere hobera egiten dute masajeari esker.

Hasteko, hobeto hondar bustian

Egunero hondartzan ibiltzeko asmotan bazaude, baina horretarako aski entrenamendurik ez baduzu, aurreneko egunetan itsasertzeko hondar bustiaren gainean ibiltzea komeni zaizu. Giharretako oinaze txikiagoa izango duzu biharamunean, eta baita orkatilak mintzeko arrisku baxuagoa ere. Egun batzuen ostean, hasi pixkanaka hondar lehorraren gaineko ibiltze saioak tartekatzen, kaloria gehiago erreko baituzu. Halaber, egin itzazu beste saio batzuk itsasoan gerriraino

sartuta zaudela, izterrak eta ipurmasailak sendotu eta bizkortzeko.

Kontuz bero-kolpeekin

Uda partean ohikoa izan liteke hondartzan paseatzen ari zaren bitartean beroak eragindako “istripuak” jasatea, bertan hezetasun handia pilatzen baita. Ustekabean ager daitezkeen istripu horiek saihesteko, onena aholku sinple batzuei jarraitzea da:

- Hartu likido ugari, ibilaldiaren aurretik, bitartean eta baita ostean ere. Behin ohitura pixka bat hartuz gero, zerorrek asmatuko duzu noiz daukazun likido gehiagoren premia.

- Hondartzara joan aurretik edan bi baso handi, eta beste litro erdi bat paseoa bukatu ondorengo ordu erdian.

- Eraman botila bat ur, paseoa egiten duzun bitartean edateko behar izanez gero. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Laharra nagusi

MALUS X DOMESTICA, sagarrondoaren loraldiak udaberria erdiz erdi harrapatzen duenean, inguruan dituen loratzeen prozesioa ez da amaitu: etxekoa duen irasagarrondo (*Cydonia oblonga*), garikota (*Silene vulgaris*) eta haren senide *Silene dioica*, kuku-praka (*Digitalis purpurea*), ilena edo aingeru-belarra edo baltsamo-belarra edo ebaki-belarra (*Calendula officinalis*), bortusaia edo albortusaia edo boskoitza edo erruda (*Ruta graveolens*), orkatxa (*Hypericum androsaemum*), santio-belarra edo milazuloa (*Hypericum perforatum*), ezki ilauntsua edo zilarkara (*Tilia tomentosa*), asta arrosa edo luisalea edo sapolarra edo arkakartsa (*Rosa sempervirens*), arbustu arrunta edo beltxalea edo binorria edo zuhain madarikatua (*Ligustrum vulgare*), zumar berantiarrak (*Ulmus* sp.), erramu portugaldarra (*Prunus lusitanica*), jasmina edo kresmina edo urkitza (*Jasminum officinale*), paradisuko hegazia (*Strelitzia reginae*), apioa edo perrexil hezea (*Apium graveolens*), glizinia txinatarra (*Wisteria sinensis*), amañililia edo amatxililia edo lila (*Syringa vulgaris*), dragoi muturra (*Antirrhinum majus*), indiano palma (*Trachycarpus fortunei*), espirea zuri eta gorriak (*Spiraea* sp.), tī pua edo lokarri hostoa (*Cordyline australis*), *Pyracantha coccinea*, girtangorria edo kirtagorria edo pasmo-belar urdina (*Ajuga reptans*), oroilorea edo oroitz-belarra edo lupi-belarra (*Myosotis arvensis*), asun borta (*Lamium maculatum*), *Centaurea debeauxii*, zigak edo zigiak edo ziguinak edo malbak (*Malva moschata* eta *Malva sylvestris*), mitxoleta edo pitxoleta edo pipirreta edo ansulunkuerda edo kukurruku edo punpun edo melingorria edo kalikola (*Papaver rhoeas*), basoetako atxaparra (*Lonicera periclymenum*), artzain-zakuak (*Capsella bursa-pastoris* eta *Capsella rubella*), kurkubita edo zubiela (*Rhinanthus* sp.), orki-dea (*Serapias lingua*), ostaizka edo bitxilorea edo petxilotea (*Bellis perennis*), ezkila-lorea (*Campanula glomerata*), errabia-belarra edo bilorria edo sagu-belarra

(*Hieracium* sp.), patata (*Solanum tuberosum*), peoniak (*Paeonia* sp.), kerria (*Kerria japonica*), ezpata plantaina edo bildosmia (*Plantago lanceolata*) eta laharra edo elorrilarra edo asua edo sasundoa edo azuarra edo errarnea edo martotxa edo martzoka edo sasia edo golde-rrena edo kaparrarteia edo gaparra edo lartza edo berroa edo laparra edo lagarra edo zarzua edo zarzia edo

Laharra, *Rubus ulmifolius*.

zaparra edo tarta edo zear-narra edo sarzia edo saspea edo olabarra edo mulua edo narra edo katxola edo xuxturra (*Rubus ulmifolius*). ■



EGOITZ ZAPIAIN

Elorrio du gaztainondoak

BESTE ARERIO BAT DU gaztainondoak (*Castanea sativa*), lehenaz gain: *Dryocosmus koripbilus*. Haritzekoak sortzen duenaren tankerako kuku sagarra sortzen duen liztorra.

Negua kimuaren barruan igaro duten harrek, udaberrian, hosto berrietan, kozkor gorritzak sortzen dituzte. Ekainetik abuztura artean eme helduak sagarretik atera eta arrautzak jarriko dituzte.

Teorian Europa kontinentalean bai, baina Iberiar penintsulan ez da gaitz hori. Berrogeialdiko gaitz izendatua dago Hego Euskal Herrian; hau da, gaitza agertuz gero beraren berri eman behar da. Dagokionari: argazkikoak Leitazaranen bizi ziren. Ederki hedatzen ari da, ordea. Gaztainondoaren gaitzik txarrena dela diote. ■



Euripidesen benetako tragediak

EURIPOKO ITSASARTEA (GREZIA), K.A. 480. URTEA. Bigarren Gerra Mediko betean, Greziako hiri-estatuak pertsiar inperioaren armadaren aurka borrokatu ziren Salaminako itsas guduan. Grezia inbaditzeko pertsiarrek egin zuten bigarren ahal-egina alferrikakoa izan zen, eta gudua greziarrek irabazi zuten.


Garaipenaren egun berean, Salaminan bertan, Klitonis eta Mnesarko tabernarien semea jaio zen. Garaipena eta jaiotza bat etortzea seinale ontzat hartu zuten; haurrari zorte ona ekarriko omen zion. Hala, gudua Euripoko itsasartetik gertu amaitu zenez, jaioberriari Euripides izena jarri zioten.

Iragarpen baikor horiek haurtzarorari hasi ziren hausten. Euripidesek berak idatzi zuenez, gurasoak ez ziren batere ondo konpontzen eta elkarren arteko etengabeko liskarrek tartean harrapatzen zuten haurra.

Ikasle ona izan arren, lanak izan zituen karrera bideratzeko. Atletika izateko ahalegina egin zuen lehenik. Gero, Atenasko Polignotoren margolanek erakarrita, margolaria izateko grina piztu zitzaion. Erretorikako maisu eta filosofo izateko ere trebatzen hasi zen. Baina horietan guztietan porrot egin zuen.

Azkenean, tragedian nabarmendu zen. Antzinako Greziako hiru tragediagile nagusietako bat izan zen, Eskilorekin eta Sofoklesekin batera. 95 tragedia inguru idatzi zituela uste da, hamazortzi edo hemeretzi baino gorde ez diren arren. Euripidesek tragediara ekarritako berrikuntzek eragin handia izango zuten antzerkigintzan. Esaterako, ez zen ohikoa emakumezko pertsonaia hark bezalako errespetuz eta indarrez jorratzea; *Medea* lana horren adibide garbia da. Baina bere garaian Euripidesek ez zuen nahi adina arrakastarik lortu.

Adituek bikaintzat jotzen zituzten idazlearen obrak. Sokrates lagun mina zuen, eta filosofo handia Euripidesek idatzitako lanak ikustera besterik ez omen zen joaten antzokira.



Euripidesen bustoa, K.a. 330. urte inguruko artelan greziar batean oinarritutako kopia erromatarra.

Baina, oro har, publikoak aspergarritzat jotzen zituen haren tragediak. Sofoklesak hogeitabat tragedia lehiaketa irabazi zituen; Eskilok, hamahiru; Euripidesek lau besterik ez. Arrakasta partzial horrek etengabeko ezinegona eragiten zion Salaminako idazleari.

Hori gutxi balitz halitosi larria omen zuen Euripidesek, eta jendea ez omen zitzaion hurbiltzen. Hala ere, bitan ezkontzea lortu zuen.

K.a. 408. urtean mahiko garbi zegoen atenastarrek Peloponesoko gerra galduko zutela eta, hiriko giro nahasitik ihesi, Euripides Mazedoniarra joan zen, Arkelao I.a erregeak gortean bizitzeko gonbita egin zionean. Baina egoera hura gutxi luzatu zen. K.a. 406. urtean hil zen Euripides, kondairak dienez, txakur saldo batek janda. Haren tragediak ez ziren hor amaitu. Idazlea hil eta hainbat urtera, haren hilobiaren alboan ur pozoitsuzko iturburu bat azaleratu omen zen. Hala, bizi artean hats-kiratsak bezala, hil ondoren iturburuak urrundu zituen bisitariak. ■



Arrastoak

Koadroak gehiegi jaitsi zituen museologoa

PAUL J. SACHS Harvardeko Fogg arte museoeko zuzendaria eta museologia modernoaren aitzindarietakoa izan zen. 1922an *Museoko lana eta museo-ko arazoak* izeneko ikastaro berritzailea ematen hasi zen Harvardeko unibertsitatean. Artearekin zuzenean zerikusia zuten gaiez gain, museoaren finantzei eta kudeaketari buruzkoak ere jorratzen zituen ikastaroan. Sachsen eskoletatik gero AEBetako eta Europako museo nagusietako zuzendari eta kudeatzaileak izango ziren ikasle asko igaro ziren eta, hala, haren ikuspegiak eragin handia izan zuen XX. mendeko museologian.

Erakusketa-espazioen antolaketa ere landu zuen Sachsek. Artelanak altuegi jartzeko joera zegoela uste zuen eta Fogg museoan koadroak ikuslearen begien parera jaistea erabaki zuen. Kontua da Sachs gizon txikia zela; ez zen metro eta erdira iristen. Haren ikasleek altuera hura arautzat hartu zuten eta, urtetan, munduko museo askotan lanak behar baino baxuago eseki zituzten. ■



Paul J. Sachs (1878-1965).

JOSUNE ARIZTONDO

«Izan garenari baino izan gaitezkeenari begiratu behar diogu»

Ondarroa, 1948. Zientzia Kimikoetan lizentziaduna eta giza baliabideen kudeaketan aditua. EA/ko kidea eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatua da. “Pribatua” eta “publikoa” dilema modura ekarri ditugu berbaldira, besteak beste.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

“PRIBATUA ETA PUBLIKOA dilema darabiltzazu. Nik ez dut dilemarik ikusten. Euskaldunok mendetan iraun badugu, gure gizarteak barrutik sortzen duen bizitasunari esker izan da. Bizitasun hori denok berpiztu behar dugu etengabe, eta horretan erakunde publikoek badute zereginik: gizarte ekintza ailegatzeko ez den tokira ailegatu behar dugu guk. Gizarte ekimenak onarpena jaso izateko berdintasun-eskubidean jokatu behar da”. Horratx-Josune Ariztondok zuzentzen duen Bizkaiko kultura sailaren funtsa.

Bizkaia pilotalekuan ikusi zaitugu bi-bitako irabazleei txapela janzten. Kirola kultura al da gaur egun?

Euskara, gazteria, kultura eta kirola dira nire arloak. Euskara ere bai. Hori kultura al da? Komunitate edota gizarte baten adierazpide ezberdinen multzoa da kultura. Euskal kultura esan ohi dugu eta horregatik bereizten ditugu nazioarteko eta euskal kultura. Kirola kultura da, baina gauza bat da kultura eta beste bat kultur politika. Kirol politika lantzen duzun arabera, gizarteak garatu, indartu eta kohezionatu dezakezu, baita euskal sena eta identitatea sendotu ere. Kultur politika norberaren filosofia, ideologia eta ekintzen arabera egiten da.

Pribatuaren eta publikoaren dilema izaten da kultur politika lantzean. Athletic futbol taldea (San Mames berria tarteko) eta Bilbao Basket



entzutetsuak dira horregatik. Non dago ekinza pribatuaren eta publikoaren arteko muga, eliteko kirolaren kasuan?

Eliteko kirolari bai edo ez? Dilema hori da, ezta? Egia da, ez betiere, eliteko kirol profesionalek diru asko irabazten dute, baina beste kultur elitekoek ere bai, eta ez denek. Ostera, inork gutxi jartzen du zalantzan kultur elitea lagundu behar denik erakunde publikoetatik. Kultura deitzen dugun elite literarioa edo musikala lagundu behar al da, bai ala ez? Gure ustez, tokian tokiko gizarte eta ekonomia egoerak ongi aztertu behar dira eta horren arabera lagundu.

Gure politikaren kirol jardun lerroak, eskola kirola eta kirol federatua dira. Horixe da Diputazioaren ardura nagusia. Bilbao Arena eta San Mames berria dela... San Mames berria egiteko sozietate bat sortu zen. Athleticek ez dauka diru laguntzarik, ezta Bilbao Basketek ere. Besterik da, barbarako, BEC eta Euskalduna azpiegituren kasuak. Herri ekimenek ere kirol eta kulturarako erabiltzen dituzte. Horiek esanda: kirol elitean dauden profesionalen irabaziak neurritz gaindiko dira, baina ez dira bakarrik kirolariak. Beraz, lagundu behar zaie behar duten neurrien. Zehazpen bat: nahiago dut elite baino abangoardia deitzea. Gizartearen erreferenteak diren neurrian abangoardiari begira bizi garelako kultur-gintzan eta kirolean bereziki.

Nola ulertu behar da kultura politika?

Kulturak gizartearen bizitasuna adierazten du, eta neurri handian, erakundeetako arduradunok entzun

behar diogu politika eta kultur ekinbideak koordinatzeko. Gure ereduan gizartea eta erakundeak eskutik doaz. Beste eredutan kulturgintza pribatua da oso, AEBetan esate baterako. Han ia-ia ez dago babes publikorik kultur arloetan lan egiten dutenentzat. Badaude onura fiskalak eta beste. Hemen hori guztia eztabaidarako gaia da. Hau da, hemen ere badaude pizgarri fiskalak, oso interesgarriak kultur mezenasentzat. Baina badira ere kultur arlo batzuk, gutxiituak, epe laburrean distirarik ez dutenak, horietara mezenas pribatuak nekez ailegatzen dira. Beraz, horietarako sustapen politika badago, euskarazko kulturgintzan edo ondaregintzan, adibidez. Erakunde publiko-demokratikoen politika barik, kultur adierazpide horiek azpiegitura eta ego-kiera duina izatea gaitza litzateke.

“Gizarte ekimenak onarpena jaso ahal izateko berdintasun-eskubidean jokatu behar da”

Bilbo eta Bizkaia ulertu daitezke Guggenheim museoa gabe egun?

Euskal Herria ulertuko litzateke gaur egun dugun literaturaren loratzerik gabe? Ulertu liteke baina pobregoa izango litzateke. Berdina esan daiteke Guggenheimi buruz. Guggenheim kultur azpiegitura garrantzizkoenetako bat da Euskal Herri osoan. “Eraikuntzak ekartzen du jendea” esaten zen hasieran. Eraikuntzak hamasei urte ditu, jendea badator, baina Guggenheimek, asko uste dutenaren kontra, trakzio oso inportantea dauka. Gura nuke gure editorialek halako trakzio ekonomiko izatea. Oxala!

Guggenheim-Urdaibai museoa hizpide. Garai batean Aldundiak egin nahi zuen, Patxi Lopezen Jaurlaritzak aldiz ez. Zertan da proiektua?

Gure erantzukizuna proiektuak ongi ezagutaraztea da. Eta, egia da, proiektu hori azaltzeko oztopoak izan ditugu. UNESCOk babestutako espazio horretan hainbat enpresa mota ezin dira jarri. Ados. Hala ere,

aurreproiektua mundu mailako artistak beren obrak egiteko museoa zen. Hemengo museo guztiak, bere modernotasunean, klasikoak dira, guk ez ditugu artistak beren obrak egiten ikusten. Alegia, nola daiteke errepide azpiegiturek dakarten aldeketen —tunelak tarte— kontra ez egotea, eta aldi berean, museo edo arte espazio ireki baten kontra egotea? Erantzuna ez dut egundo aurkitu. Dena den, Patxi Lopezek ez zuen museoa egitea gelditu, bideragarritasunaren azterketa baizik. Proiektua geldirik dago, baina Guggenheimaren plan estrategikoan bizirik dago. Etorriko dira garai berriak eta proiektua aztertuko da. Galdeketak eta foro parte-hartzaileen iritziak kontuan hartuko ditugu, noski.

Euskal Herriak bizirik jarrai dezake, euskaraz alegia, turismoaren garapena neurrigabea bilakatuz gero?

Hizkuntzak ez dira isolatuta bizi. Euskaldunok ere ahalegintzen gara datozenei erakusten hemen badagoe la tokiko kultura bat, hizkuntza bat, non Guggenheim kultura horren parte den. Guggenheim euskaraz bizi da, euskaraz dakitenek egitea dute, eskaintza ere hala ematen da. Ostera, Bilboko Euskararen Etxera [San Inazio auzoan] erbesteko jende pila dator gure euskalkiak edota euskararen bilakaera nolakoa den ezagutzera. Euskararen Interpretazio Zentroa da. Gu ez gara isolatuta bizi, ezta bizi nahi ere. Euskal Herri euskalduna mundura gehien zabaltzen dutenak turistak dira.

Jesus Eguigurenen berbak dira hauek: “Euskadi, Bizkaia handi bat egiten ari gara”.

Hasteko, terminologian ez nator bat Eguigurenekin. Bizkaia gure lurralde historikoa da. Euskadi Zazpiak Bat da, aldiz, EAE, erkidego politiko bat, zazpietako hirurekin egindakoa. Euskal Herria gure nazio kulturala da, zazpi lurraldeetako. Euskadi zazpi lurralde dituen nazio politikoa da, egunen batean bateratua ikustea espero dudana.

“Zenbat eta Euskadi gehiago Euskal Herri gutxiago” ere esan du.

Ez, alderantziz. Zenbat eta Euskal Herria gehiago izan Euskadi gehia-



go, zenbat eta kultur komunitatea sendoagoa eduki (hori da niretzat Euskal Herria) orduan eta komunitate politiko hurbilagoa. Badaude erakunde batzuk komunitate horren gintzan ari direnak. Euskaltzaindia edo Eusko Ikaskuntza, adibidez. Handiak aipatzearen (ARGIA ere tartean). Horien sorreran, lau diputazioen asmoa erkidego kultural horri bizirik eustea izan zen. Batzuen ametsa, ez denena, komunitate politikoa osatzea zen. Niretzat hori Euskadi deitzen da.

“Bizkaiko aberatsak diru zale” zioen Gabriel Arestik. Bizkaitar abertzale-tasunak euskara kamuts samar, halaber.

Abertzaletasuna Bilbon jaio zen mugimendu politiko bezala. Sortzaileak [Sabino Arana] euskara ikasi zuen eta haren jarraitzaileek ere bai. Eurretariako asko ez zen euskalduna. Jose Antonio Agirrek [Lehendakaria] berak ez zuen etxean jaso euskara. Gabriel Arestik zioena egia da. Bilbon eta inguruan bazegoen burgesia oso inportantea, kapitalismoaren inguruan, ez zena euskara zalea sekula izan, abertzaleen kontra jokatu zuena; Sota familiaren salbuespena alde batera. Baina Bilbo hori baino gehiago da: Zazpi kaleak da. Edota Bizkaitik sasoi batean etorri ginen olde euskaldunak, Bilbon erroak bota ditugunak. Bilbo, halaber, langile herria da, bere iluntasun eta argitasun guztiekin erreferentzia bizkaitarrentzat. Bizkaitarrok Bilbo maite dugu, nahiz eta hona etortzean (duela urte asko jada) burlak entzun behar izaten genituen gure doinua zela eta. Herri arrantzaleko-
ok beti izan gara zaratzatuak, base-
ritarrek berriz, beldurtiagoak, atze-
ra egiten zuten. Bilbo gure erreferentzia izan da Sabino Aranaren etxea hemen zegoelako, Bizkaiko Foruak oso inportanteak izan direlako. Bilbo, Gernika eta abar Bizkaiko erresistentzia lekuak izan ziren. Hori guztiek gure historia eta Bilbo egiten dute.

“Bilbon salbatuko gara edo ez gara salbatuko”, esan zuen iaz Ramon Saizarbitoriak.

Horrek bere sinbologia literarioa dauka. Gutaz barre egiten dute Bilbo



“Euskadi zazpi lurralde dituen nazio politikoa da, egunen batean bateratua ikustea espero dudana”.

handia esaten dugunean. Metroa hartzen baduzu, bere hedaduran Euskal Herrian bizi garenon erdia hementxe bizi gara. Salbatuko ote garen?

Bilbo euskalduntzen bada, esan nahi baita.

Aizu, ari gara. Bilbo da euskaldun gehien duen hiria. Dentsitatea da gure arazoa. Kazetari euskaltzale bat Bilbora etorri eta “futbol zaleen aurrean moda desfilea euskaraz ikusi dut!” esan zidan harrituta. Bilbok bilakaera izan du arlo askotan, euskararen presentzian hala nola prestigioan. Euskaldunok ez gara gutxi Bilbon, frogatu dugu nor izan gaitezkeela hirian, arlo askotan euskaraz biziz. Horrek jende asko animatu du bere burua euskalduntzera. Eta beren burua ezin izan dutenek beren seme-alabarena behintzat. Kulturara iristeko euskara funtsezkoa da, eta hori lortu dute euskara etxean jaso ez zutenek, euskaraz hitz egiten ez zutenek. Hori Bilbon izan da eta Euskal Herrian orobat. Ikastolei esker, besteak beste.

Beste dilema bat: Bilbo Euskal Herriaren hiriburua da? Iruñea ote?

Bizkaia eta Nafarroa... Euskal Herrian, nolabait definitzeko, askatasun handiena eduki dugunean ere, gure errealtatea konfederala izan da. Ez dugu sekula Euskal Herri osoa gobernatu duen erakunde

bakarra izan. Hau da, gurean oso barneratuta dago konfederakuntza-
ren kultura, eta horrek ez du kentzen denok elkarretaratzea, ez elkarrekin aritzea, ezta aginte bakarra izatea. Baina ez dezagun egin, dena zero eta bakar bat. Naziogintzaz ari garenean, izan garenari baino izan gaitezkeenari begiratu beharko genioke. Ez diezaiozun nazio jakobinoen ereduari jarraitu, barbarako.

Zein dira oztopo handienak “euskal kultura” finkatu ahal izateko? Munduan euskaldun bizitzeko, beste kulturen artean nor izateko?

Edozein oztopo aukera bihur deza-
kezu. Guk txikiek dituzten arazoak eta aukerak ditugu. Handiak txikia zapaldu egiten du, baina txikia abila da oin azpitik eskapatzen. Txikia zulo guztietatik pasatzen da, handia inondik ez. Erronka hori da. Oztopoak aukerak bihurtzea dugu erronka. Ez da alferrik gu txikiak izanagatik ezagunak izatea. Gure bale harrapariengandik hasita, munduan zehar laga dugu geure arrastoa. Bide horri jarraitu behar diogu, munduari begiratzat geure etxekoari begira, nor garen ahaztu barik, mundutik dator-
kiguna geureganatuz. Horra futbola, kanpotik etorria. Bilbo horren lekuko eta adibi-
dea da. Hor daukagu ere pilota, mundura atera duguna. ■



TERMOMETROA

BERRIKUNTZA

Energiaren zero gunea Hernaniko Galarretan

Krisi garaian berrikuntza izan ohi da hura gainditzeko balio ziurrenetakoa. Hernaniko Galarretan sortu berri den Berrikuntza Gunean unibertsitatea, enpresa eta ikerkuntza uztartuko dituzte, jasangarritasun energetikoa oinarri hartuta.

| MARTIN VICIOSO |

2010EAN MIRAMONGO teknologia parkea zabaltzeko erabakia hartu zuten, besteak beste, Gipuzkoako Diputazioak, Eusko Jaurlaritzak eta Oronak, Mondragon Unibertsitateak eta Ikerlan-IK4ek osatzen duten Ikasleku Fundazioak. Hernaniko Galarretan zegoen lur eremu bat zuen Orona igogailu egileak aspaldi buruan, eta hortxe kokatu dute energia ardatz izango duen teknologia parkea.

Galarretako gunean ikerkuntza eta garapenean (I+G) oinarritutako enpresa ekimenak bultzatuko dituzte, baina apustu garbiena jada abian da, Oronak sustatutako Berrikuntza Gunea edo Ideo-Innovation City. Berrikuntza teknologikoari lotutako lau ardatz jorratuko dira bertan. Hezkuntza,

ikerketa, enpresa eta energia jasangarria uztartuko dituzte.

Eraikin nagusia, edo Zero eraikina, Oronaren egoitza zentrala izango da aurrerantzean. Bertako ikerketa lanak, beraz, enpresarekin berarekin lotuak izango dira. Mondragon Unibertsitateak ere fakultatea izango du, hiri mugikortasunean oinarritutako bi ingeniaritza gradu eta energia jasangarriei buruzko masterrak eskainiz. Ikerlan-IK4ren laborategietan, aldiz, elektrizitatearen biltegitratzearekin lotutakoak ikertuko dituzte. Izan ere, arlo horretan bat eginik aurrera egiteko akordioa sinatu dute Oronarekin. Azkenik, Galeria izeneko eraikina bisitariei eskainia da. Parke osoko energiaren monitorizazioa erakutsiko da, eta sistema energetiko berriz-


tagarrien ekoizpena ikusi ahal izango da, museo baten antzera.

Eragile ekonomiko eta soziala

Buruntzaldean, Gipuzkoako beste hainbat tokitan bezala, industriak eragin handia izan du eskualdeko bilakaera ekonomikoan. XIX. mendeko eta, batez ere, XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetako industrializazioek bertako ekoizpena handitu zuten, eta Euskal Herriko gunerik oparoenetakoa izatera ailegatu zen.

Industriako langile kopurua handia izanik, gerora etorritako krisiek -70ko hamarkadako lehenik eta gaur egungoa ondoren- bereziki astindu zuten sektorea. Ondorioz, industriak eraberritzeko beharra izan du biziraupena ziurtatzeko,

Oronaren egoitza nagusia, Zero eraikina, zabaldu aurretik atonduta. Hau izango da parkearen gune zentrala.



Erradiografia

Hernani

Biztanleak: 19.481

Balio Erantsi Gordina sektoreka: Nekazaritza eta abeltzaintza (%0,4), industria eta energia (%43,2), eraikuntza (%14,6) eta zerbitzuak (%41,8).

Langabezia tasa: %14,6 (gizonen artean %13,8; emakumeen artean %15,8).

Industrian eta energian lan egiten dutenak: 1.622 lagun.

Euskararen ezagutza: %54,3

Galarretako Berrikuntza Gunea

Azalera: 40.000 m² Berrikuntza Guneak (teknologia parkeak orotara 108.000 m² izango ditu).

Inbertsioa: 70 milioi euro.

Lanpostuak: 500

Iturriak: Gaindegia, Eustat, Orona.



Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkearen zabalpena Galarretan. Bertan ikus daiteke Berrikuntza Gunea, oraingoz eraikita dagoen bakarra: eskuinean Zero eraikina, erdian energia galeria eta Ikerlan-IK4 laborategia, eta ezkerrean unibertsitatea. Atzealdean berriz, EcoBoulevard-a eta teknologia parkearenak lirakeen pabilioiak.

bereziki berrikuntza teknologikoe-tan oinarrituz. Testuinguru horretan uler daiteke Hernaniko Galarretako Zientzia eta Teknologia Parkearen balioa.

Proiektuaren aurkezpenean Hernaniko alkate Luis Intxauspek azpimarratu zuen krisi garaian gisa honetako proiektu gutxi abiatzen direla. “Trebakuntza altuko” 1.000 lanpostu inguru sortuko omen dira –horietatik 500 Ideo-Innovation Cityn–, berrikuntza teknologikoari lotutako beste enpresek ere Galarretan egoitza ezartzeko aukera edukiko baitute. Izan ere, Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkeak erakundeei alokatu ahal izateko eraikinak egingo ditu. Hortaz,

Berrikuntza Gunearen helburua, I+G eta hezkuntza oinarri, eskualdeko eta lurraldeko eragile ekonomiko eta sozial indartsua izatea da. Unibertsitatearen, gizartearen eta enpresaren arteko topagune izan nahi du.

Teknologia parkearen beraren eraginkortasun energetikoa ikerketarako baliatuko dute Galarretan

Teknologia Parkeak proiektuarekin koherentea den energia politika bultzako du. Sustatzaileek azaldu dutenez, eraikin guztiak beren behar energetikoak asetzeko gai

izango dira. Halaber, azpimarratu dute energia modu jasangarri eta garbian ekoiztuko dutela (eguzki plakak, geotermia...). Dena den, ez dira soilik horretan geratuko. Berebiziko garrantzia eman diote energiaren kudeaketari, eta ikerketa lerro nagusietakoa izango da. Hortaz, parkearen beraren eraginkortasun energetikoa ikerkuntzarako aukera bilakatu dute.

Gunea ofizialki aurki estreinatuko den arren, jadanik martxan da. Esaterako, lehenengo promozioak 2013-2014 ikasturtean hasi ditu ikasketak energiaren ingeniari-tzan eta ekoteknologiaren arloan. ■



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua (euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

INAKI BEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiratzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

Busturialdeko hizkera guztiak ikasgela berean

Ibilaldia ez dadila bakarrik Gernikarako izan, eskualde osorako izan dadila. Esan eta egin. Bagilaren 1erako Gernika-Lumoko Seber Altube ikastolak antolatu du Bizkaiko ikastolen jaialdia, baina Busturialdea batuko dute Euskararen bihozferaren barruan: Urdaibaiko biosfera naturala eta Busturialdeko euskara, alegia. Bien ezaugarria delako dibertsitatea, naturgunearena eta eskualdeko 20 herrietako euskalkiena.

| MARIJO DEOGRACIAS |



Seber Altube ikastolan 600 haur-gazte ari dira ikasten eta 150 Gernika-Lumotik kanpokoak dira. Ondorioz, Busturialdea eskualdeko euskararen aldaera ia denak entzun daitezke ikastolako jolastokian. Argazkian ikasleak Ibilaldiko jantziak elegante asko erakusten.

MENDEBALDEKO euskalkiaren barruan erdiguneko azpieuskalkia egiten da Busturialdean, baina herri batetik bestera aldaera asko batzen dira eta ia guztiak entzun daitezke Seber Altube ikastolan. Izan ere, Bermeokoak izan ezik, eskualde guztiko neska-mutikoak ari dira

ikasten Gernika-Lumoko ikastolan. “Bakoitzak bere usaindun euskara dakar, baina askotan ez dira konziente eurek dakarten zer horregaz”, diosku ikastolako euskara irakasle Jon Andoni Uriartek. “Galdetuta zuek zelan esaten duzue gaztelaniazko ‘ir’, Ibarrangeluko

batek ‘joan’ esaten dizu, ohartu barik euren etxean ‘yun’ esaten dutela”, jarri digu adibide irakasleak. Euskalki jabeak izanik ere, euskara estandarrean aritzeak euskalkia alde batera uztea eragiten du eta hori neska-mutikoengan igarri dute. “Ikastolara datozenean tekni-

kotu egiten dira. Euren euskara homogeneizatu egiten da, ez bakarrik eskolaren edo estandarren eraginez, baizik eta euren artean gehien entzuten duten hori egitera jotzen dutelako” diote Uriartek eta ikastolako zuzendari Roberto Arteagabeitiak. Hori dela eta, Ibilaldiaren aitzakian, Busturialdeko euskararen aniztasuna ikasgeletan jorratzeko tresna abiatu dute. Paperezko formatuan batetik eta webgunean bestetik. Ikasleek, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek, 4-5 saiotan, euren euskalkia lantzeko aukera izango dute. Proiektuaren asmoa da hizkuntzaren aberastasuna era dibulgatiboan jasotzea eta ikasleak horren garrantziaz jabetzea. Horretarako hainbat ariketa praktikoko osatu dituzte, EHUKo EUDIA Euskararen Bariazioa Aztertzeako Ikerketa Taldearen laguntzarekin. Eurek hartu dute irakasleentzako materiala era sintetiko batean egituratzeko ardura. Eskualdeko euskararen ezaugarri nagusien gida moduko bat osatu dute, herri bakoitzaren aldaera nabarmenenak identifikatzen laguntzeko.

Izan ere, ikasleek euren zaharrei egingo dizkieten galderen bidez, hainbat ariketa egin beharko dituzte eta horretan lagunduko diete irakasleek. Garrantzitsutzat jo dute hasieratik irakasleentzako materiala osatzea, “irakasle denak ez baitira adituak horretan eta eurentzako laburpen teoriko bat, edo irakasleentzako gida, prestatzea garrantzitsutzat jo dugu, herriak elkarrengandik bereizten dituen ezaugarriak

nabarmenduz”, azaldu digute. Hala ere, Seber Altuben ari diren 54 irakasleak “euskalki jabeak gara, batek ‘doa’, besteak ‘due’ eta hirugarrenak ‘doie’ esaten badu ere”, dio Arteagabeitiak.

Gernikatik Busturialdera

Seber Altube ikastolan ikasten duten 600 ikasleetatik 150 Gernikatik kanpokoak dira, eskualdeko gainerako herrietatik datozenak. Hori kontuan izanik, pentsatu dute Busturialdeko euskararen aniztasuna ikasgeletan jorratzeko material

Euskalki jabeak izanik ere, euskara estandarrean aritzeak euskalkia alde batera uztea eragiten du eta hori neska-mutikoengan igarri dute

didaktikoa ezin dela Seber Altubera mugatu eta proiektua askoz ere handinahiago bihurtu dute: herriko gainerako ikastetxeetara eta eskualde osoko beste eskoletara zabaltzea, alegia. Kalkulatu dutenez, eskualde osoan, maila horietan, (LH 5-6 eta DBH 1-2), 1.400-1.500 ikasle inguru ari dira. Horregatik, eskualdeko udal guztiekin harremanetan jarri dira proiektua aurkezteko eta babesa eskatzeko. Ibilaldiko prestaketei erantsitako lan gehigarria-edo. Baina gustura daude Seber Altuben. “Harrera oso ona izan dugu udale-

rri guztietan eta espero dugu gainerako ikastetxeek ere erabiliko dutela materiala”, dio ikastolako zuzendaria.

Aniztasun horri esker, gainera, baikorrak dira proiektuaren sustatzaileak. “Ikasleek oso gertu daukate eskualdeko herri bateko baino gehiagoko senideren bat. Nekez dira guraso biak gernikarrak, beraz, informatzaileak topatzeko oso erraza izango da eta gela bakoitzak eskualdeko hainbat herriakoak bilatzeko arazorik ez da egongo”, diosku harro euskara irakasleak.

Kontuak kontu, maiatzaren 29an aurkeztuko dute proiektua Busturiko Madariaga dorrean: paperean 500 ale aterako dituzte eta egun horretan jarriko da abian webgunea ere. Ikasleek egiten dituzten elkarriketak, bideoak eta eskualdeko euskalkiaren gaineko bilduma sareara igotzeko aukera izango dute, irakasleek laguntzarekin. Egun horretatik aurrera, eskualdeko ikastetxe guztiei eskainiko zaie proiektuan parte hartzeko aukera, hau da, egingako materiala erabiltzea, eta webgunera batuko diren lekuan lekuko euskalkiaren adibideak gehitzea. “Publiko, pribatu, kontzertatu izan berdin digu. Busturialdeko hizkuntzaren aniztasunaren alde lan egiteko aukera ahalik eta zabalena izan dadin gura dugu”, aitortu digute Seber Altubekoek.

13.000 euroko aurrekontua dauka proiektuak eta hortik aurrera diru gehiago batuz gero, luzatu egingo litzateke proiektua, paperezko formatuan zabalkunde handiagoa emanaz eta hitzaldi edo saioak eginez, lekuan-lekuan. ■



Eako herria ere euskararen Bihozferan!

 **Eako Udala**
www.eakoudala.net



IBILALDIA
GERNIKA-LUMO 2014
euskararen bihozfera

Ariane Ensunza

«Sekulako nahasketa, dibertsitate eta aldakortasuna dago Gernikako euskaran»

ARIANE ENSUNZA Aldamizetxe-barriak (Gernika-Lumo, 1988) Gernikako euskararen ezaugarri fonetikoak aztertu zituen lehenengo eta Busturialdekoekin ari da gaur egun, tesia egiten. Bera ibili da, Leire Gandarias eta Lorea Unamunorekin batera, EUDIA ikerketa taldean, Busturialdeko euskararen dibertsitatea ikasgeletan jorratzeko tresnaren prestaketan, Seber Altube ikastolak eskatuta.

Zuk zeuk gernikarrez egiten duzu?

Bai, baina ama ereñarra daukat, beraz, gauzatxo batzuk igartzen ditut handik hartutakoak direla. Gernikan asko gara guraso biak gernikarrak ez ditugunak eta horrek ere eragin du herriko euskalkian. Sekulako nahasketa, dibertsitate eta aldakortasuna dago Gernikako euskaran.

Non daude Busturialdeko herrien arteko desberdintasunik handienak?

Hortxe ditugu Bermeo eta Elantxobe, biek ere kostako hizkera dute eta, esaterako, Gernikako edo Muxikako euskararekin konparatuz gero oso desberdinak dira; beti ere, bi mutur horiek aztertuz gero. Baina Gernika eta

Ereño ikertuta, akaso, desberdintasuna ez da hain nabarmena, distantzia handia izan arren herri bien artean. Mendialdean, esaterako, gehiago kontserbatu dute euren euskalkia, baina gazteen artean, mugikortasuna handiagoa izanik, hasi dira ez egiten euren aitita-amonena.

Zure ikerketari dagokionez, bina informatzaile erabili dituzu.

55 urtetik gorako informatzaileak eta euskara batuan alfabetatu eta mundu 'berrian' bizi diren gazteak, hau da, herri batetik bestera mugitzen direnak. Gazteok herriko euskara mantendu duten edo norantz aldatu duten aztertzea

“Bertako hizkera belaunaldien artean gehien mantendu dutenak Elantxobe eta Ereño direla esango nuke”

zen helburua, beraz, gazteen kasuan beste herrietako hizkerekin hartu-emanak izan dituzten informatzaileak aukeratu ditut.

Gazte horiek euren hizkera estimuan daukate?

Badira herri txikiago batzuk sen handiagoa dutenak, nortasun sendoagoa dutenak eta kontziente direnak horixe dela euren berba egiteko modua. Beste herri askok Gernikako euskararantz jo dute. Kontuan izan Gernikakoa dela euskara batutik hurbiltsuen dagoena. Esaterako, ‘-o’ amaiera orokortuago dute, hau da, batuan ere hitz asko horrela esaten direnez, amaiera hori orokortu dute eta ‘-ue’ amaiera baztertu dute. Adibidez: astue (astoa), lepue (lepoa), karamelue (karamelo), due (doa). Belaunaldien artean bertako euskara gehien mantendu dutenak Elantxobe eta Ereño direla esango nuke.

Periferian biak ere.

Bai, eta bertako gazteak asko mugitzen diren arren, haiek eutsi diote gehien eurenari. Foruko eta Korteubiko hizkerak, esaterako, Gernikan egiten denetik gertuen daudenak dira.

Master amaierako lanean Gernikako euskararen aldakortasuna aztertu zenuen. Zer nolako aldaerak identifikatu zenituen?



Kortezubiko Udala

Enderika Auzoa 4,1
48315 KORTEZUBI
udala.kortezubi@bizkaia.org
<http://www.kortezubi.net>

GERNIKA GOGORATUZ
Centro de Investigación por la Paz. Bakearen Aldeko Aztertegia. Peace Research Center.
Fundación Gernika Gogoratuz. Gernika Gogoratuz Irakundea. Gernika Gogoratuz Foundation.

Memoria eta Artea Bake Pedagogia gisa

www.gernikagogoratuz.org

Bustiduraren inguruko ikerketa egin nuen, euskara batuaren eraginez zelan galtzen ari den bustiduraren eragina. ['Goixien', 'aretxa', 'gatxa'; 'goizien', 'aretza', 'gatza' beharrean edo 'ixen', 'badakixu'; 'izen' eta 'badakizu' beharrean]. Esaten da Busturialdeakoa zubi-hizkera dela, sartaldeko eta sortaldeko euskarren artekoa. Gura nuen ikusi zer duen batetik eta zer bestetik.

Eta asmatu duzu?

Errekaren banaketaren isla baino gehiago, ipar eta hegoaren arteko desberdintasuna ematen da hemen. Busturialdean ardatz bi dago: errekairena eta ipar-hegoarena. Batzuetan banaketa horizontala da, hau da, iparralde (kosta) eta hegoaldea (barrualdekoa) eta beste batzuetan da errekairena eskumata eta ezkerretara; biosferaren erre-serbaren argazkia, alegia.

Zein da aldaerarik nabarmenena, batzuen eta besteen artean?

Berba amaieretan, artikulua gehitueran, bustidura –itturix (iturria), eztixe (eztia), azerixe (azetia)–; eta aditz morfologian, erabiltzen diren markatzaileak. Azken batean, denean ematen dira aldaerak. Baina, bereizketa nagusia belaualdiz belaualdikoa da. Lehen Busturiak harreman handiagoa zuen Bermeorekin, eta orain berriz, Gernikarekin.

Busturialdeko euskara ezagutzen ez duenari zelakoa dela esango zenioke?



MARIJO DEGRACIAS

"Gernikarrak kontsonante epentetikoa galtzen hasi dira: meri(x)enda, bih(x)otza... Belaualdi gazteenen eta helduaroan euskaldundu direnen artean antzeman dut".

'-ie' amaiera egiten dugu asko, 'etxie', 'farolie'... bai euskal berbetan zein maileguetan. Arratian '-ea' egiten da eta Lea Artibain '-ia'. Aldaera hori ez da aldatu euskara batuaren eraginez, edo belaualdien arteko aldaketan ondorioz. Hala ere, egia da herri batzuetan lehen '-i' egiten zela eta galtzen dabilzala, 'etxi' esan ordez 'etxie' esaten hasi dira.

Seber Altube ikastolaren proiektuaren helburuetako bat umeeek etxetik dakarten euskara prestigiatzea da.

Bai, batua sartu da eskolan zuzen-zuzenean eta umeeek euskalkia baztertzen dute. Kontua ez da euskalkia baino ez gitea, baizik

eta bertako hizkerari prestigioa ematea, ezaugarri asko galdu baititu. Ikas dezatela testuinguru bakoitzean erabili behar den erregistroa aukeratzeko.

Euskara batua aipatu duzu aldaketen arrazoi legez. Beste zerk eragin ditu aldaketak herritarren hizkeretan?

Indar garrantzitsuenak euskara batua eta alfabetizazioa izan dira. Gernikako euskararen kasuan, esaterako, kontsonante epentetikoa galtzen hasi da: meri(x)enda, bih(x)otza... Belaualdi gazteenen eta helduaroan euskaldundu direnen artean antzeman dut. ■



Foruko Udala

Elejalde Auzoa, 1.
☎ 94.625.51.80 - Fax : 94.625.49.08
idazkaritza.forua@bizkaia.org



Nabarnizko Udala

*Zeu zara euskararen benetako Bihozfera
Zaindu, baina batez ere erabili.
Euskaraz egin beti!!*

www.nabarniz.org

IRUÑEKO HIZKUNTZA PAISAIA

Euskara zokoratu duten seinaleak Google Maps-en kokatzen


Iruñeko Navarro Villoslada institutuko A ereduko ikasleak Nafarroako hiriburuko kaleetan ibiliak dira. Euskara baztertzen duten seinaleei argazkiak atera dizkiete eta orain Google Maps-en marrazten ari dira Iruñeko euskararen paisaia.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

AMAIA IRAZUSTA Navarro Villosladako irakaslea da, A ereduko euskara erakusten die. Duela urtebete Iruñeko euskalgintzak bultzatutako *Aldatuko dugu!* kanpaina ezagutu zuen. Orduan, herritarrei dei egin zitzaion argazkiak ateratzeko kale izenei, turismo plakei, errotuluei, baldin eta euskara gaztelaniaren mailan tratatua ez bazen. Bere ikasleentzat ekimen polita izan zitekeela pentsatu zuen Irazustak, baina berandu zebilen, ikasturtea bukatzeaz zen.

Urte honen hasieran gogoratu eta Iruñeko euskalgintzari galdetu zion ea berriz kanpaina egitekotan ziren. Haiengandik proposamen polita jaso zuen: ikasleek atera zitzaizela argazkiak, kokatu zitzaizela Iruñeko mapan –Google Maps-en bidez– eta esan zezatela adibide bakoitzean bi hizkuntzak berdintzatzea eskatzen duen udal ordenantza betetzen zuten ala ez.

Apirilean egin zuten txangoa Iruñeko kaleetan eta orain google-maps-a antolatzen ari dira. Irazustari galdetu diogu ea zergatik pentsatu zuen ikasle horientzat ekimen interesgarria izan zitekeela. Haren hitzetan, ikasle askori ez zaio iruditzen hizkuntza paisaian euskara baztertzen denik, seinale ugari bi



Ikasleak konturatu dira Iruñeko hizkuntza paisaian euskara baztertuta dagoela. Sarean adibideak kokatzen ari dira: <http://ttiki.com/64711>.

hizkuntzetan ere ikusten dituzte, eta ez dira konturatzen euskarazko eta gaztelaniazko idatziak ez daudela maila berean. Izan ere, seinaleok zehaztasunez begiratu behar izan dituzte antzemateko ea ez ote dagoen euskaraz idatzitakoa gaztelaniazkoa baino kolore argiagoan, edo letra txikiagoan. “Orain konturatu dira euskara zokoratzen dela, seinaleak ele bitan agertzea ez dela nahikoa”. Irazustak ikasleek ekimen honetara bultzatzeko beste arrazoi bat eman du: euskararekin harreman gutxi dute. “Ikus genitzake filmak, entzun genitzake bertsoak... euskara hutsean dira ordea, eta ez

dira moldatzen, azpitoluak-eta behar dituzte”. Egunerokoan euskarara hurbiltzeko modua izan da beraz kalera ateratzea. “Nik uste dut zerbait eragin diela. Adibidez, ingurukoek esan diete *Diario de Noticias*en atera direla”.

Navarro Villosladako ikasleak argazkilari lanetan hasi aurretik herritarrek aritu dira horretan. Argazkiak Iruñeko euskalgintzari bidali zizkieten. Ondorioak iritsi dira: herritarren presioari esker, Udalak hainbat seinale berritu ditu eta euskara eta gaztelania maila berean ipini. ■



Babeslea: Hernaniko Udal



Hernaniarrok Udal aurrekontuetan parte hartzeko prozesua laster abian...



Xaldun Kortin jolastu gurekin!: Kantuak, ipuinak eta jolasak euskara transmititzen laguntzeko

LABRIT MULTIMEDIAK *Xaldun Kortin jolastu gurekin!* liburu-CD-DVD paketea argitaratu du. Belaunez belaun euskara transmititu dadin, etxean euskara erabiltzeak duen garrantzia azpimarratu dute ateratako materialean, euskara gutxi edo asko jakin. Giro hori sortzeko kantauak, ipuinak eta jolasak bildu dituzte.

Azken urteetan, Nafarroan, herriz herri ibili dira aiton-amonen ahotik kantauak, ipuinak eta jolasak jasotzen, eta horien bilduma da liburua eta CDa. Atarrabiako, Leizaldeko, Larrauneko, Bortzirietako,

Elizondoko eta Ribaforadako haurrek kantatu dituzte tradiziozko kantauak.

Modu askotako jolasak aurki daitezke *Xaldun Kortinen*, hala nola, eskuekin, behatzekin eta hankekin egitekoak, laztantzeko eta mina arintzekoak, trostan ibiltzekoak, lokartzekoak eta memoria lantzekoak.

Gurasoentzat aholku sorta ere bada; haurrari hizkuntza garatzen lagundu diezaioten. Euskara gutxi dakiten gurasoentzat, badakitenentzat eta etxean bi hizkuntza erabiltzen dituztenentzat kontseiluak aurki daitezke.

XALDUN KORTIN



Kantuak Nafarroako hainbat herritako haurrek abestu dituzte. Argazkian Elizondoko gaztetxoak grabaketa bete-betean.

Kirol campusak Zenbat Gararen eskutik

EZ DA LEHENENGO ALDIA izango aurtengo udakoa, baina bai eskaintza zabalagoa eta finkatuagoa. Bilboko Zenbat Gara elkarteak urte osoan lantzen ditu haur-gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak. Alabaina, ekainetik irailera eskaintza berezia eta trinkoagoa izango da Gazteolaren eskutik. Esaterako, kirol campusak egingo dituzte; hala nola, futbol, saskibalo, eta pilotakoak. Kirolekoen gain bertsuarena eta ingelesarena ere egingo dituzte. Elkarlanean antolatuko dituzte Danok Bat futbol taldearekin, Bizkaiko Saskibalo Federazioarekin, Bizkaiko Pilota Federazioarekin, Bertsozale Elkartarekin eta Eliot School akademiarekin arituko dira. 6 eta 19 urte arteko haur-gazteek Rock campusa probatzeko aukera ere izango dute Bilborock aretoan.

Campusez gain, udalekuak eta tailerrak izango dira: dantza udalekua, musika sorkuntza eta DJ tailerra, bideogintza tailerra, antzerki udalekuak, jolas eta kanta udalekuak. Klasiakoak ez dira faltako, Bakaikun (Nafarroa) barnetegia egongo da eta Bilbon ikastaro trinkoak egingo dituzte.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Zergatik Alemanian ez dituzte kutxak pribatizatzen?

KUTXABANKEN etorkizunaren harira, alderdi politikoek, sindikatuak eta patronalek iritzia eman dute, batzar nagusietan interpelazioak egin dira, artikulak publikatu eta mobilizazioak ere antolatu dituzte, Gasteizen adibidez. Baina ez da egiazko eztabaida publikorik sortu ezarle, aurreztaile, politikari, sindikalista eta enpresarien artean; desiragarria eta osasuntsua litzateke. Oraingoz dakiguna da elite politiko eta enpresarialak erabaki duela arrazoiak daudela Kutxabank pribatizatzeke. Argudio faltsuak eman dira: EBren agindua dela, esaterako. Ez da egia. Galde diezaietela alemanei eta Merkeli. Zergatik Alemanian ez dituzte aurrezki kutxak ukitu?

EAEn aurrezki kutxen fusio prozesua hasi zenetik bazegoen intentzioa kutxak banku bihurtzeko. Eta Mario Fernandez –gero Kutxabankeko presidente bihurtu dena– ez da urrun ibili; pribatizazioarako bidea berak diseinatu du. Orain batzuek esaten dute –bes-

teak beste EAJk– Kutxabank ez dela pribatizatuko etorkizunean bankuen fundazio izango diren kutxek kontrola mantentzen badute. Beste batzuek –ELAk, LABek, ezker abertzaleak eta erakunde sozialek– diote akziodun pribatuak sartu eta kapitalaren %10 edo %20-30 eskuratzen badute, Kutxabanken kontrol publiko eta soziala arriskuan geratuko dela.

Kutxabank pribatizatuko balitz errentagarri izateko eta akziodunei etekinak emateko helburuz, banku-operazio arriskutsuak egitera joko luke. Finantza tresna publiko izateari utziko lioke, herritarrek ez lukete kontrolatuko, eta lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen bizkarrezur izateko bokazioa galduko luke. Ezberdinen arteko akordioa beharrezkoa da Kutxabanken pribatizazioa eragozteko. Oraindik garaiz gaude.

Juan Mari Arregi



La fête de la dette, itotzen gaituen zorra irribarrez ulertzeko

“Zorra egiten duena ez da edozein” zioten zaharrek kreditua eskuratzea aberatsen esku besterik ez zenean. Gaur munduko herritar guztiok gabiltza zorpean, aberatsek lortu dutelako are aberatsago izatea haiek egindako zorren ordaina estatuen bizkar utzita. Parisen saiatuko dira antzerkiz ulertzen eta dantzaldian umorez ospatzen denon zorra.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EUROPAKO HAUTESKUNDEETAN EZ da aski aipatu zorra, nahiz eta askoren ustez horixe den geopolitikatik hasita jendearen eguneroko ezintasunetarakin dena baldintzatzen duen datu nagusietakoa: estatuek beren gain hartutako zor publiko itzela. Hauteskunde biharramunean, Parisen badute estatuarren diru-kutxaren zuloez mintzatzeko aukera.

Frantzia Caritas laiko gorria den Secours Populaireko lehendakari Julien Laupetrek –gaualdiaren etekinak erakunde horrentzako izanen dira– eta Christophe Aleveque aktoreak antolatu dute zorra irri eta bals artean ospatzeko ekitaldia: “*La fête de la dette*”, zorraren festa. La Villette eremutik hurbil, 104 artegunean burutuko da ekitaldia maiatzaren 31n 19:00etatik aurrera.

Cristophe Aleveque (1963) aktore txit ezaguna da Frantzian. 1991n bakarkako umoregintza gazi politizatua aurkezten hasi zenetik, irratia, antzerkia eta zinea egin ditu, idatziz plazaratu artikulu eta liburuez gain. Telebistara sarritan konbidatu dute. Nabarmenki ezkerretan kokatua, Sarkozyren kontra aritzeaz gain arrakastuz probokatu ditu Frantziako eskuz kristau berriko jendeak.

Alevequek gidatuko du maiatzaren 31ko festaren lehen zatian ikusiko den “*Le tour de la dette en 80 minu-*

tes”, Zorraren bira 80 minututan. Ekonomialari ezagunek eta sindikalistek hartuko dute parte azalpenetan; tartean izango dute Susan George idazle eta altermundialista famatua. Ondorenerako iragartzen da dantzaldia, Parisko antzinako kaleko *guinguette* popularretako giroa nahastuz *happening*, erakusketa, konbidatu berezien parte-hartze, jan-edan eta abarrekin.

“Elkarrekin aztertu nahi dugu –diote egitarauaren aurkezpeneari– larritu eta beldurtu gabe, ‘zorraren arazoa’ deitu duten korapilo hori. Konplikatu omen delako, jendea aspertzen du edo ikaratzen. Gu saiatuko gara ‘zorra’ noren bizkar doan eta mesede nori egiten dion ulertzen, ebidentziak lehertzen, betiko uste ustelak desmitifikatzen, soinean daramagun kulpabilitateari ostikada ematen, erroreak nabarmentzen, paradoxak azpimarratzen, horrela gehiago esan ez diezaguten: ‘Lasai, gu okupatuko gara, zuek zoazte kalera jolas egitera’”.

Beste erakunde askoren artean ATTAC talde altermundialistak ere babestu duen ekitaldi ludiko-aldarrikatzaile hau (“*Solidarité, festivité et civilité! Voici notre trinité!*”) antolatu duena Coopérative Direction Humaine des Ressources (DHR) elkarteak da, bere buruari helburutzat honakoa jarri diona: “Elkarrekin harremanetan

SIPA agenziarentzako Delalande Raymondek egin argazkian, Christophe Aleveque aktorea “*Super Rebelle! Enfin ce qu’il en reste...*” monologoan 2012an Frantziako lehendakaritzarako burutu kanpaina aitzakiatzat hartuta umore politikoa egiten. Bera izango da “*La fête de la dette*” (irudi txikian festa iragartzen duen afixa) ekitaldiko liderra, zor publikoa den gai korapilatsua modu arin, lasai eta barregarrian azaldua izan dadin ahaleginduko dena. Ondoa edukiko ditu sindikalista, idazle eta ekonomialari serioak, batzuk Economistes Atterrés (Ekonomialari lkaratuak) izen serioa duen elkarteko kideak. Susan George idazle ezagunak ere eskainiko du lekukotasuna. Georgek aspaldi esan zuen inperioek kolonialismoarekin baino estuago lotzen dituztela gaur herrialdeak zorraren bidez. Mendebaldeko herri eta jendeek ere aplikatu dakieke lege bera.

Estatuek zor, aberatsek altxor

Estatuen zorrak aipatuta, duela gutxi arte munduko herrialde txiroetan pentsatzen genuen Europako jendeok. 1990etik Hirugarren Munduaren Zorra Ezabatzearen aldeko Batzordeak (CADTM frantsesezko sigla ezagunetan) defenditzen du munduaren Hegoaldeko estatuei ezabatu dakien haien agintariak beren gain hartu duten zor ez-legitimoa. Alabaina, 2008ko krisitzarra kudeatzeko erabilitako estrategiak zabaldu dizkio askori begiak: nola pilatu da gaur bere herritarrei babes sozial guztiak murrizten dizkieten estatuen hainbestearainoko zorra?

CADTM elkarteak herrialde txiroen zorraren auditoria eskatzea aldarrikatu du aspalditik. Finantzen krisi moduan hasi eta benetan krisi sistemikoa suertatu denak Grezia hondoratu zuenean, *Troika*ren salbamendu errezetak medio, orduan hasi zen aipatzen hemengo zor publikoa ere auditatu beharra. Pariskoak urrats *golfo* bat izan nahi-



ko luke ezkutukoa azaleratzeko bide horretan.

Eztabaidan parte hartuko duen Thomas Coutrot ekonomialariak azaldu du herritarrei bizkarretik kendu behar zaiela zor publikoaren errudun izatearen kulpabilitatea: lanordu gutxiegi egiten dutela, opor luzeegiak dauzkatela, laguntza publikotan gastu handiegia doala, eta abar luzea, hedabideek usu zabaltzen dituzten mitoak. “Gezur horiekin estali nahi izan dute administrazioak daukan zuloaren errudunak direla enpresei eta aberatsei zergak jaistea, loturik arduradun politikoen axolagabekeria espekulazioaren aurrean”.

Patrick Viveret filosofoa eta Frantziako kontuen auzitegian

magistratu aritua ere parte hartzeko da maiatzaren 31ko festan. “Kontuen auzitegian ikusi ahal izan da azken hamar urteotan Frantzian batera edo bestera 100.000 milioi euro barkatu dituela estatuak zergatan. Noren mesedetan? Dudarik gabe aberatsenen mesedetan. Diru horiek gehiago irabazi dituztelarik, jende aberatsok ahalmena daukate zorretan dagoen estatuari dirua uzteko. Beraz, bi aldiz irabazi dute: lehenbizi zerga gutxiago pagatzearrekin, bigarrenean estatuari bere zorragatik interesa kobratuz”.

Aldiz, gutxien irabazten dutenek zigor bikoitza daukate. Alde batetik zerbitzu sozial gutxiago daukate estatuak zerga gutxiago kobratzen duelako. Bestetik, bere zergekin

lagundu behar dio estatuari ordaintzen zor publikoaren interesak. Ez kexa txiroegia baldin bazara zuzeneko zergak pagatzeko -soldataren gainekoak- zeren zuk ere pagatuko duzu produktu eta zerbitzu guztiak zamatzen dituen BEZarekin.

Mendebaldeko estatuen zorpetzea dago herritarren arteko berdintasun eza gero eta handiagoa izatearen bihotzean. Pierre Larroustourou ekonomialariak azalduko du Parisen nolaz zor ekonomikoa eta zor soziala elkarri loturik doazen. Ronald Reagan eta Margaret Thatcherrez geroztik, mendebaldeko herritarren soldatek gero eta pisu txikiagoa izan dute ekonomiaren osotasunean, eten gabe handituz joan dira bai zor pribatua eta bai zor publikoa, eta aldiz korporazio handien eta familia aberatsenen irabaziak izugarri handitu. Mendebaldeko 15 herrialde indartsuenetan 1976tik 2011 artean langileek galdutako soldatek osatzen dute Barne Produktu Gordinaren %150, finantzen merkatura eta paradisu fiskalera joan direnak.

Henry Fordek esana omen da 1930eko hamarkadan, larritasunean soilik XXI. mendeko honek gainditu duen krisiaren erdian: “Gauza ona da Amerikako herritar gehienek ez jakitea nola funtzionatzen duen benetan bankuen sistemak; zeren eta jakingo balute bihar goizeroako iraultza lehertuko litzateke hemen”. Parisen maiatzaren 31n nekez sutuko dute iraultzarik. Ez da gutxi izango azken 30 urteotako gezurren estalkia pittin bat harrotzea? Algaraz eta baltsan, gainera. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona



DANI BLANCO

Espainia 1, Argentina 0

JUSTIZIA UNIBERTSALA

kontzeptu zoragarria da teorian, munduan inork nahi duena egin ez dezan, eta jakin dezan mundu mailan delitutzat hartzen dena eginez gero, munduan zehar jazarria izango dela eta, hala badagokio, zigortua. Baina, munduan zer da delitu eta zer ez? Hor dago koska ugarietako bat. Gauza asko jadanik zehaztuak daude NBEn eta nazioarte mailako justizia itunetan: auzi judizialik gabeko hilketa masibokak, tortura, desagerketak... eta beste hainbat dira kontzeptu honen pean han hemenka epaitu izan direnak. Egunotan María Servini epaile argentinarra dago Espainian eta Euskal Herrian, frankismoan zehar egindako delituak ikertzen. Argentinatik hona etorria ikertzeraz? Bitxia bada, zalantza barik, bai herritarra ez dagoelako batere ohitua justizia unibertsalaren ingurukoak entzuteraz —estatuek, oro har, ez diote batere apologiarik egiten— eta baita ere pentsarazten duelako ea zergatik etorri behar duen Argentinatik eta zergatik ez duten Espainiakoek ikertzen.

Espainiako Justizia, egia esan, azken 20 urteetan ez da atzera geratu justizia unibertsala indarrean jartzeari dagokionez. Hego Amerikako hainbat diktaduretan izandako delituak ikertu ditu eta zigorrak ezarri ere bai. Argentinako desagerpen eta tortura kasuak tartean, 2007an Adolfo Scilingo militar argentinarrari 1.089 urteko kartzela zigorra ezarri zion Espainiako Auzitegi Gorenak Argentinan 1976 eta 1977an ia 300 pertsonen atxiloteta, tortura, heriotza edota desagertzean parte hartu izanagatik. Scilingo Mexikon atxilotua izan zen, Espainiara estradi-



tatua, epaitua eta zigortua. Gaur egun, Espainiako kartzeletan ari da betetzen bere zigorra.

Dena justizia unibertsalaren izenean eta, besteak beste, Baltasar Garzón epaile izarraren bultzadarekin. *Dena da ETA* doktrinaren akuilu handienetakoa izan da Garzón, *Egin* egunkariaren itxiera bideratu zuena adibidez, edo bere aurretik torturak txikitutako dozena euskal herritar pasatzen ikusi zituen, horren aurka atzamar bakarra mugitu barik. Scilingoren zigorraren aldeko haizea baliaturik, 2008an frankismoan gertatutako delituen ikerketari ekin zion. Eta hortxe egin zuen topo Espainiako justiziaren paretarekin: Auzitegi Nazionaleko fiskaltza —PSOeko Zapateroren gobernupean— ikerketen aurka agertu zen, prebrikazio salaketa egin zitzaion Garzóni eta epaitua izan zen. Absolbitua izan zen orduan, baina epaiak balio izan zuen frankismoaren aurkako ikerketaren bidea ixteko. Geroago PPren Gobernuak ateak itxi dizkio, oraintsu justizia unibertsala dela eta egindako erreforma medio. Ondorioa bitxia zen: Espainiak ikertu eta zigortu dezake norbait Argentinako diktaduran egindako delituengatik (Scilingo, adibidez), baina frankismo-ko krimenak ezin dira ikertu. Kontraesana eskandaluzkoa da; justizia unibertsalak bidean topa-

tzen dituen oztopo ugarietako bat. Espainiako epaileek ere badakite oztopo mota hortaz. Santiago Pedraz epailea José Couso kameralariaren hilketa ikertzen ari da. Tanke estatubatuar batek egin zion tiro Iraken. Pareta gaindiezina da —AEBek esan diote jada jai duela—, baina Pedrazek jarraitzen du ikerketarekin.


María Servini epaileak ere bai, jarraitzen du justizia unibertsalean sinesten eta, Argentinan frankismoaren aurkako salaketak aintzat hartu ondoren, ikerketarekin ere bai. Eskatu zuen Antonio González Pacheco *Billy El Niño*aren estradizioa Argentinara. Espainiak ukatu. Eta Espainiak ikertzen ez duenez, bera dator Espainiara. Espainiak Scilingo epaitu bazuen, berak zergatik ez *Billy el Niño*? Logikoa eta justiziakoa. Kasu honetan Espainiako Justiziak jarri dio paretaz, Auzitegi Nazionalak: delitua preskribitua dago.

JUSTIZIAREKIN komeni dena egin dela ez da berria, izan unibertsala ala ez. Espainiak badaki zer-bait hortaz. Epaile batek 2002ko kasu batez *El País*-en (2014-5-19) kontatu duena lekuko. Espainiako segurtasun indarrek 2002ko apirilean ustez atentaturen bat egitera zihoazten bi espioi frantsez atxilotu zituzten Marbellan, arma eta guzti. Frantziako Gobernuaren eskariz, Jose María Aznarren gobernuak —fiskaltza bidez— auzia bertan behera uzteko agindua eman zuen eta bi espioiak libre ziren 2002ko urrirako.

Eta Frantziak, justiziaren izenean, jarraitu zuen etakideak espainiaratzen. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat




Atxaspi Hotela

Relax gaua
(astean zehar)
bi lagunentzako

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



EUREKA! zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Goza daiteke geihago

Euskaldun baten
hizkuntza-bidaia

Karmelo Ayesta
5 liburu

<https://sites.google.com/a/utrusque.com/utrusque-vasconiae/>

4



Illimani

liburua opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2413. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

- Jon Garmendia Lasa (Lesaka)

EKAINBERRI

- Irune Iturbe Arriola (Aretxabaleta)
- Josu Aldama Larena (Bitoriano, Zuia)
- Maria Asun Azpiazu Ansorregi (Mutriku)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Fray Juan De Zumarraga Institutoa (Durango)
- Xabin Mujika Tolaretxipi (Asteasu)
- M. Jesus Barrenetxea Azkunaga (Galdakao)

URTZ "Astiro" CDa

- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)
- Dionisio Sasieta Telleria (Ezki-Itsaso)
- Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)
- Joxan Apaolaza Bernedo (Oizartun)
- Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)

ERLEA GURE SENDAGILE Liburua

- Maritxu Uria Eizagirre (Zarautz)
- Alfredo Navarro Los Arcos (Iruñea)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia





jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gozatu
euskARAZ

Noranahi goazela. Nonahi gaudela.
Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi
nahi dugunean, geure erara. Euskara
gure bizimoduaren osagaia da.
Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure
giroan, **gure artean euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia